

1985eko Abendua

# Latxun

2. zenbakia

2



**Irlanda, gerra bereziaren laborategia**



Larrun, 1985eko abendua

# Gerra berezia Europar Irlandako laborategia

*Nazio askapen mugimenduen kontra, eta hedapenez sistema auzitan jartzen duten talde guztien kontra, azken urteotan Mendebaldeko estatuak kontra-intsurjentziaren estrategia izugarri landu dute. Hari luze batek lotzen ditu gerra kolonialak Europako estrategia «antiterrorista» deituekin. Hor ditugu Irlan da eta Alemania adibide odoltsuenak bezala... eta Euskal Herria. Roger Faligot idazle bretoiak 330 orrialdetako liburu bat dedikatu dio («Guerre secrete en Europe. Le laboratoire irlandais») Irlandako erresistentzia nazionala suntsitzeko britainiarrek eraiki duten estrategia politiko-militarrari. Europa barruan gerra berezia erabiltzeko laboratoriotzat dauka Faligotek Irlanda, eta berak Irlandako gerra luzeaz egiten duen azterketak guri ere balio digulakoan gaude. Esan liteke ez dela Irlandako gatazkaren dimentsio bakarra. Egia da. Baina dimentsio hori gabe ezin da ongi ulertu han gertatzen dena... edo euskaldunok inguratzen gaituen errealitatea. Horregatik erabaki dugu liburu horren erresumen zabal bat egitea.*

## IRALANDA EUROPAR DAGO, EUSKADI ERE BAI

Karl Marxen zita batekin irekitzen du Roger Faligotek bere liburua. «Irlanda da gobernu ingelesak armada handi egonkor bat mantentzeko duen aitzakia bakarra, armada hori, behar izanez gero, eta jadanik ikusia dugu, langile ingelesen gainera jaurti ahal izateko, beren ikasketa militarrik Irlandan eginak dituztelarik. Antzinako Erroma hark neurri ikaragarri batzuetan erakutsi ziguna errepikatzen da gure egunotan Ingalaterran. Beste herri bat zanpatzen duen herria bere kateak ari da forjatzeko». 1870ean idatzi zizkien Meyer eta Vogt-i hitz horiek Marxek, eta aktualitate izpi bat ere ez dutela galdu esan genezake.



Frank Kitson, gaztetandik Inperioaren defentsa aztertu eta esperimendatu.

### Gure gizona: Frank Kitson

Roger Faligotek bere liburuari egin dion sarrera ekarriko du gu orriotara, liburuaren mamia kontatzen hasi aurretik. Ziurrenik gizon baten esannahia eta indarra neurritz gain baloratzen dituela argudiatu ahal izanen da, baina interesik ezin ukatuko zaio.

«Europari gerra deklaratu dio gizon batek. Libertateena. Gerra Berezia bat. Bere esperientzia militarrik berezia den gizon batek. Militarren ikuspegi politikoagatik; politikaren ikuspegi militarrikagatik.

Bere sakelean Afrika eta Asian zehar ezagututako gerra kolonialen esperientzia dakarrela, bere nagusiek arriskutsutzat dituzten mugimendu sozialak, borroka biolentoetara doazela

iruditzen zaizkien mugimenduak, lehertzeko, kontrolatzeko, kanalizatzeko, abortaerazteko, planak marrazten ditu. Atzo gudar malaisiarren kontra, nazionalista keniatarren kontra, fe-dayin-aljeriarren eta Vietcongaren kontra erabilitako teknikak erabili, ahal izango liriteke, eskala handian, lehen aldikotz Mendebal European.

Irlandako herri jazarkundea, duela hamar urte nazionalismoaren garra bizieraziz, sakonki itsatsia zegoen berezia zen kolonialismo historia luze batean, eta neurri horretan Europa geografikoaren mugetan azaleratzen zen, Europa ekonomiko eta politikoaren parte izanez.

Gizona, Frank Kitson jeneral britainiarra, bere teorien aplikazio kanpo moduan aurkitzen du Irlanda; teoriak harrigarriak hasieran, baina gero onartuak izan direnak, armada britainiarren dotrina nagusi bihurtzeraino, eta piskanaka OTANeko indarra ere bai.

Populazioen kontrola, gerra psikologikoa, unitate berezien erabilera, informazio taldeen hipertrofia, teknologia berri baten garapena, kontrolatzeko, lehertzeko ez bada, desobedentzia zibil, oposizio politiko, sindikal, arrazazko, feminista, ekologiko edo gerrilla urbano mailako edozein era, horra plana. Gerra berezia ordenagailu eta helikopteroarena da. Informazioaren eta beregana iristeko azkartasunarena. Helburu batekin: herrietako populazioak.

### **Irlanda, Europa barruan eta Europa bazterrean**

Ordenagailuaren eta helikopteroaren gerra, baina baita ere —eta batez ere— dotrina bat: kontra-intsurrekzio tresneria osoan armadak izango duen pizu gero eta handiagoa eta aparato politiko-militarrak batasun estilo bat; honek, gerta litekeen edozein jazarkunde baino lehen, gizonen eta ideien bijilantzia sistematikoa bat prestatuko du, talde politikoen infiltrazio eta manipulazioa, mugimendu sindikal, komunikabide eta zerbitzu sozialena. Hitz batez, disidentziara jo lezaketenen paralizatze eta ezabatzea.

Irlanda isiltasun konspirazio baten biktima da, baina ez da bakarrik mendetan zehar eta batez ere azken hamarkadetan erresistentzi kanpaina bati lotu eta beren askapen nazional eta soziala lortu nahi duten horiek isolatu nahi direlako. Dударik gabe Irlandaren interes estrategiko gero eta handiagoa OTANeko submarinoen joan-etorriak azpimarratzen du, baina isiltasun horrek garantizatzen du guk ez dezagula hemen jakin zer ari diren prestatzen han gaur bihar gurekin erabiltzeko.

Ipar Irlandan — Irlanda osoa eta Britainia Handia ere ukitzen dituelarik — ekin den gerra bereziaren orijinaltasuna zera da, tren martxan dagoela garatu dela, gertakizunen atzera samarretik. Europara hori hedatzearen orijinaltasuna, aldiz, kontra-khoa da. Dispositibo hori martxan European garaiz jartzen da: indar sozial, politiko edo nazio zapalduetakoak herriaren babesa

gozatzen duen gerrilla hiritar bihurtu baino lehen (Kortsika edo Euskal Herria alde batera utziaz).

Kontra-intsurtzentzi mailako esperientzia Italiara, Alemaniarra, Estatu Espainolera, hedatzen da, eta teoria kitsondarra esperientzia berriz aberasten da, baina funtsean Irlandak bakarrik eskaini du gaurdaino esperientzi gune total bat, non gerra bereziaren dispositibo burohausterik gabe eta globalki erabiltzen bait den.

### **Britaniarren obsesioa: «irlandesa suntsitzea»**

Hortik iristen gara Irlandaren historia latzera, britainiarren aldetik baina baita Europa kontinentalaren aldetik ere herri horretan etengabe espezio legediak ametitzera, populazio nazionalistaren kontrako setiaketa amaiezina eta bere talde politiko eta militarrek esterminatze metodo posible guztiak onartzera. Anglo-saxoien etorreratik, sekula ez da usadio demokratikorik izan Irlandan. Erakunde modernoak, herria bi estatu artifizialean zatitzea bera, Londresek nahita sortu erazi duen gerra zibil batetik datoz, bere eskupetik askatu nahiko zukeen Estatu independente bat ahultzeko eragindako gerra zibil batetik.

Baina zehaztasun horrek ez dio herri horri bere laboratoriorio izakera kentzen, ezta bere biztanleei akuri izateko zorte tristeak barkatzen ere. Ingelesezt mintzo direlako, zuriak direlako, *Europa barruko etsai* kontsideratzeko hainako neurrian European integratuak daudelako, era berean isilpean hiltzen uzteko bezain marjinal direlako — beren historiagatik, beren kulturagatik, beren geografiagatik —, guzti horregatik dira batean urrutiko etsai terrorista, atzerritarra eta era berean geure errainua.

Sekula ezagutu ez den bezalako puntu bat herrien kontrol politiko-militarraren esperimetaketa koerente bat egin ahal izateko.

Obsesio zoro bat dute britainiarrek Irlandaren aurrean: Kitsonek berak aitortzeko ausardia dauka Cronwell-en Armada Berria «irlandesa suntsitzeko» sortu zela, polizia politikoa eta zerbitzu sekretuak irlandesen jazarkundea birrintzeko. Eta obsesio horrek kupidagabe bihurtzen ditu gaur egungo erresistentzia txikitze garaian. Irlandan dituzten okupazio indarrak ez dituzte mantzentzen esperimatzeko bakarrik, baizik eta baita interes ekonomiko, politiko eta estrategiko oso erreallengatik ere.

### **Eta espainiarrek euskaldunokin beldur bera bade?**

Ez dugu esango Mendebal Europako edozein gatazka sozial edo politikok eredu irlandarra ezagutuko duenik. Hala ere, gerra bereziaren perspektiba orokorrak, baita bere metodo taktiko, arma eta teknikak ere, edozein lekutan erabili ahal izateko kapital aberats bat eskaintzen dute. Horregatik liburu honetan kontra-intsurrekzioaren xake-taula osatzen duten elementu ez-



«Belfast galtzen badugu, behar bada Brixton edo Birminghamen borrokatu beharko dugu».

berdinak, argitasunaren mesedetarako, gatazkaren testuinguru zehatzean analizatzen ditugu. Osagarri horiek, Irlandako gerra berezia den errealtate beldurgarrian, batera artikulatzen dira, lotzen dira, elkarren artean nahasten dira.

1973ko apirilean, kontra-intsurjentzia eta terrorismoari buruzko mintegi batean, britainiarrek hain maite eta ugari egiten dituzten horietako batean, mahai inguru baten gaia zera zen: «1970eko hamarkadan indar armatuek ordenua zaintzeko duten papera». Royal Institute for Defence Studies erakundeak antolatua zen, eta hala deklaratu zuen zuzendariak: «*Belfast galtzen badugu, behar bada Brixton edo Birminghamen borrokatu beharko dugu. 30eko hamarkadako Espainia Europa mailako gudu orokor baten entsaioa izan zen bezala, behar bada Ipar Irlandan gertatzen dena Europa mailako eta batez ere Britania Handi mailako gerrilla gerra orokor baten entsaioa izan daiteke*».

## KONTRANTSURREK- ZIOAREN TEORIA KITSON BRIGADIERRAREN LIBURUA

«*Low Intensity Operations — Subversion, Insurgency and Peacekeeping*» ipini zion izenburutzat bere liburuari Frank Kitsonek. Alegia, «*Intentsitate ahuleko operazioak: subertsioa, jazarkundea eta bakegintza*». Bere gainetiko agintari politiko eta militarrek hitz ederrez ospatu zuten liburua. Eta ingeles ezkertiarrek eskandalizatu baziren ez zen izan jadanik hor argitzen diren teknikak Irlandan martxan daudelako, Kitsonek argi eta garbi teknika horiek laster Ingalaterra zaharrea erabili beharko direla adierazten duelako baino.

Irlandarren aurrean, izan ere, britainiarrek anbiguitate bat dute. Batetik atzerritar kontsideratzen dute, eta beraz metodo militarrek erabili ditzakete kontzientzia zintzoko ingelesak izutu gabe; baina era berean Erresuma Batuen zatia dute. Hori kontutan izan du Kitsonek bere teoria osatzerakoan, eta horre-

tarako hiru osagarri sintetizatu ditu: frantsesen gerra kolonialak, britainiarrenak eta bi horien lezio eta guzti Indotxinan galdu zuten yankiena.

### Frantsesak eta Aljeria

Frantsesen esperientzia Roger Trinquier koronelaren eskutik hartzen du Kitson-ek. SDECE zerbitzu sekretuak 1953an komando aerogarraiak antolatzeke agindua eman zion, eta Vietnamh-aren kontrako gerrillak antolatzen ibili zen. Horretarako populazio menditar batean oinarritu zen, 100.000 bat biztanle zituen «Meo» etnien, eta infiltraketan bezala sabotaje mailan sekulako arrakasta lortu zuten frantsesek.

Urte bete beranduago Geneve-ko akordioa iritsiko zen, eta Trinquierren jakituria guztia Aljeriara doa. Medio hiritartu bati egokitu beharko zaio, beraz. Aljeriako «terroristak» badu baldintza bat mesederako bezala galbiderako: ostatu ematen diotak ezagutzen duela. Beraz, ezagutzen duen horrek salatu lezake. Kontragerrilla, populazioa berreskuratzeko ekintza psikologiko eta psiko-sozialak, biztanlegoaren kontrol estua eta ekintza operazionalekin informazio sarea elkartzea, horra Armadarentzako lan zabal bat.

FLNren aparato sendoa birrintzeko, Aljeriaren bertan 5.000 kide zituelarik, populazioa isolatu eta gerra psikologikoa sendotzeaz gain, ahalegin handi bat egin beharko du informazio bilketan. Torturan maisu egingo da Trinquier, eta horren teorizazio izugarria da bere liburua: «*La guerre moderne*». Gerra zikina eta ekintza paramilitarra ere erabiliko dira, guztiak bi helburu garbirekin: populazioaren berreskuratzea eta erresistentzia armatuaren isolaketa-eliminazioa.

### Vietnam, kontra-intsurjentziaren teknologizatzea

Vietnamgo gerrak ere fruitu ederrik eskaintzen dio kontra-intsurjentzi lanean saiatu nahi duenari. *Westmorland* jenerala aipatzen du Faligotek Pentagonoko jeneralen eredu. Haren ustez, edozein ekintza militar jendearen jarreran izango dituen ondorioen arauera neurtu behar da.

Kennedy presidentearen garaietan, unibertsitateak, psikologoak, antropologoak, soziologoak, edozein zientzia, Indotxinako gerrarako erabiliko dira. Etnia guztiak ikertzen dituzte, marineen erasoak prestatuz. *William Colby*-k berak aitortu zuen CIAk FNLko 50.000 koadroren garbiketa planifikatu zuela, gizarte vietnamdarraren azterketa antropo eta soziologikoetan oinarrituta. Vietnamen sartzen da kontra-intsurjentziaren teknologizatzea atzera ezinezko bidetik.

Baina Kitsonen iturririk gozoena britainiarren esperientzia izan da. Ez dituzte alferrik berrogeitamar gerra mugatu egin, batzuk ezkerreko errejimena oztopatzeko baina gehienbat

mugimendu nazionalisten kontra: Palestina, Malaysia, Kenya, Oman, Txipre, Aden, Malaysia berriro, Dhofar... eta Irlanda, beti.

### Kenyatik Txiprera, Malaysian barna

Informazio zerbitzuko ofizial izan zen Kitson Kenyan 53-55ean, 57an konpainia baten komandante Malaysian, 62-64ean batailoi baten buru Txipren. Eta 1970an Ipar Irlandako 39. brigada ematen diote. Kenyan, tortura erruz erabilteaz gain, «pseudo-gang» deituak antolatu zituen: kenyar lealistek abertzaleak hiltzeko, baina baita abertzaleen izen ona zikintzeko ere, gezurrezko kolpeak. Salatari sarea bere gain zeoan, eta infiltrazioan ere ikasteko aukera eman zion.

Malasian komunistak askoz hobeki antolatuak zeuden, antza, Maoren «gerra luze» kontzeptuetan ikasiak, eta masen artean ongi errotuak. Baina ahuldade bat zuten: populazio txinarraren zuten oinarri. Hor esperimentatu zituzten ingelesek operazio homogeneo eta ondo teorizatuak. Gero amerikarrek hobetuko zituzten «herri estrategikoak» ere hango inbentuetan dira, informazioa lortzeko eta gudarienganako konfidantza zultzeko populazioei gosea nozitu eraztea bezala. Gerrilleroak damutuzera eramateko kanpainak kalkulatu dira, eritzi internazionala lantzen da, eta erreforma mantsoen bidetik agintea bertako elite nazionalari pasatzeko bidea errezten da.

Txipre gerra zikina esperimentatzeko kanpo polita izan zuten britainiarrek, eta EOKA infiltratzeaz gain, turkiar eta greziarren arteko zatiketa eta borroka probokatu zen. Prentsa internazionala kontrolatu zen, eta han estraintatzen da abertzaleen izen ona zikintzeko sexu historiak inbentatzeko errekurtsua. Horra subertsioa Europako mugetan eta giro hiritarrean esperimentatuta.

### Jazarpen baten faseak Kitsonentzat

Gorago aipatu dugun liburuan dago zehaztua Kitsonen teoriaren mamia. Liburu hori laster euskaraz argitaratzeko asmoa den arren, hartan markatzen diren hiru faseak aipatzea merezi du, fase horiek batipat Nazio Askapen Mugimenduentzako interesatzen zaizkiola argiturik.

Lehen fasea: *prestaketa*. Egitura militar eta zibilen koordinazio eta integrazioa eratzeko denbora ematen du. Horrekin batera, klandestinoek profitatzen duten egoeran erreforma batzuk egin behar dira. Era berean, «kalitate ahuleko» informazioa bildu behar da, mugimendu klandestinoaren organigrama zehazteko; sinpatizanteak ere aztertu behar dira, gero klandestinitatean, edo interrogatorioetan, nola jokatu duten kalkulatzeko. Operazio psikologikoak ere prestatu behar dira.

Bigarren fasea: *bortxarik gabea*. Mugimendua oraindik manifestaldi eta desobedentziaraino iristen da. Poliziak jokatu be-

har du, militarrek atzetik pronto direla, eta politikoez aldaketak agindu behar dituzte, horrekin batera eta operazio psikologikoen bidez liderrak masetatik apartatzeko lan eginaz. Ekintza ez biolentoetan ari direnak gobernuaren altzoan bildu behar dira: «*haurra bere esnetan itotzea*» deitzen zaio horri.

Hirugarren fasea: *jazarkunde armatu edo agerikoa*. Orain arte aipatutako neurri guztiak gerra berezi baten plan orokorrean bildu behar dira. Informazio bilketa unitate berezietan lotzen zaie, infiltrazioa barne, erresistentziaren izena zikintzeko operazio paramilitarrak behar dira azkar, «pseudo-gang» ez batez ere, eta orenen gainetik: etsaia ezagutu eta eliminatu.

### Ekintza kontra-iraultzaileen eskuliburua

Bere liburuari Frank Kitsonen eraskin bat gehitu zion, «*Ekintza kontra-iraultzaileen eskuliburua*» izenekoa, konfidentziala omen dela eta Britainia Handian saltzen ez dena. Orain arte aipatu ditugun oinarriek atxikitzen zaie Eskuliburua ere, eta hala definitzen du egileak plan osoaren funtsa:

«*Hona kontzepto funtsezkoa: triunbirato bat eraiki behar da (zibil, militar eta polizia) erakunde amankomun eta integratu gisa, erabaki politiko, plangintza eta administralgoaren erabaki gune gorenetik apalenera*».

Plan orokor horrek sei neurri kontra-iraultzaile bilduko litzuke:

- a) urjentziatzko legedi bat ezartzea.
- b) subertsiboek eskaini dezaketena gaudituz herriaren babesa eskuratzeko neurri politiko, sozial eta ekonomikoak.
- c) maila guztietako kontrol zibil eta militar efikaz bat lortzeko organizatzea.
- d) informazio sare efikaz, bateratu eta nazional bat, hori gabe operazio militarrek ezin dute-eta arrakastarik izan.
- e) polizia indijena eta indar armatuak sendotzea.
- f) intsurgenteak herriaren kontroletik isolatzeko kontrol neurriak.

Operazio guzti hauek Armada ingelesaren unitate berezien lanak borobilduko dituzte. Honela esplikatzeko «Special Air Services»-en abantailak Kitsonen:

«*Talde txikiak infiltratu nahiz paratxutatu daitezke. Helburu hauen bila saiatu beharko dute: (a) indar jazartuen kokapen eta mugimenduei buruzko informazioak biltzea; (b) intsurgenteen kontrako enbuskada eta erasoak; (c) buruzagiak asesinatzen eta sabotaje ekintzak burutzeko infiltratzea; (d) fronteren zaintzea; (e) biztanlego zibilarekin harreman mugatuak edukitzea; (f) gure etsai beraren kontra aritu daitezkeen gerrillak sortu edo lotzea*».

### Eta Irlandara iristen da bere teoria guztiekin

1970.ean iritsiko da Irlandara Kitson, eta teoria guztia martxan jarri eta gaurkotzeko parada izanen du. Hasteko, begien bistakoa da berak aipatzen duen lehen fasea jadanik gauditua dagoela. 1956-62 artean mugetako gerran saiatu zen IRA, populazioaren altxamendua eragin nahiz, baina sekulako jipoia jaso zuen. Ondorioz, politikari lotu zitzaion mugimendu nazionalista, eta horren lekukoak dira gutxiengo nazionalistarentzako eskubide zibilak lortzeko 1966-68 urteetan antolatzen diren kanpaina pazifikoak.

Bigarren fasea unionistek erakartzen dute. Manifestaldiei egurrez eta tiroka erasotzen diete protestante radikalek, eta auzo nazionalistetan benetako programak egiten dituzte, poliziaren laguntzaz. Katolikoek autodefentsara jo beharra daukate. Hala ere, IRA bera ez da iristen auzo nazionalistak ongi defenditzera, eta ezintasun horrekin lotua dator «ofizialen» eta «probisionalen» arteko etendura.

1969ko uztailaren agertuko da armada ingelesa, «katolikoak babesteko», aitzakiatan; benetan, nazionalisten ezinegonari frenua jartzeko. Kitson iristen denean bere 3. fasean ongi sartua dago Irlanda. Gerra bereziaren inguruan bildu behar dira indar guztiak.

Ingelesak katolikoek internamentuei ekiten diete, eta hauek beren auzoak barrikadaz inguratuz erantzuten dute. Londresek hartzen du zuzenki IRaren kontrako borroka, eta katolikoak gozatzeko zenbait neurri sozial agintzen dira. Kitson ez dago ados. Bere ustez IRA isolatzeko beharko litzateke: *bere barruan eszisia eragin; bakearen aldeko mugimendu bat sortu; detentzioak trumilka egin beharrean ongi aukeratuta egin; IRA zikintzeko gerra psikologiko zabal bat eratu; «pseudo-gang» en bidez infiltratu eta lealistak manipulatzearekin batera populazioa ikaratu*.

Ez zaio kasurik egiten, ordea. Bere plana ez da onartzen, hasiera batean, baina zenbait zati hasten dira martxan: propaganda, ghettoetan sartzea, eta batez ere katoliko hilketa. 1972an Londresa daramate Frank Kitson. Eta bere ideiak gero eta indar handiagoa hartuz doaz. 1975etik aurrera osorik aplikatzen dira bere planak Britainia Handiko giro guztietan: armadan, ikerketa zentroetan, presio taldeetan, «*think tanks*» edo «pentsatzeko makinak» deitzen direnen artean, OTANeko buruen artean... eta Alemanian batez ere, han jarraitu bait zuen bere karrera.

# UNITATE BEREZIAK EKINTZA BEREZIAK S.A.S.

Britainiarren planak soldadu arruntek burutu ezin dituzte-  
nez, yankien «marine»en tankerako talde berezi bat badute,  
«Special Air Service. Zaila da bere antolakuntza eta lanak eza-  
gutzea, buruen izenak ez dira ezagutzen, argazkirik ezin zaie  
egin, eta normalki beren izenak beste errejimentu arruntetan  
daude ipiniak.

## Beste armaden irakasle ultraeskuindarrak

SAS hauen sorrera bigarren gerra mundialean kokatu ohi da,  
baina bere sustraiak askoz zaharragoak dira, joan den men-  
dean klase aberatsetan sortutako eliteko taldeetan oinarritzen  
dira. Gaur egun oraindik ere SASetako ofizial gehienak aris-  
tokrazia eta burgesia ingelesetakoak edo Eskoziako lurjabe  
handien artekoak izan ohi dira.

Rommel-en «Afrika Korps» indartsua atzetik infiltratu eta  
saboteatzea izan zen SASek egin zuten lehendabiziko lana,  
1941ean. Hori ofizialki, zeren ordurako, 1940ean, sobieta-  
rren kontra eskuadroi bat aritua zen, uniforme finlandiarrez.  
Gerra bukatuta, Greziako makis komunistak lehertzen eta na-  
zionalista kurdoak harrapatzen ibili ziren. Ikusten denez, ha-  
sieratik dago zerbitzu sekretuen eta Foreign Officeren operazio  
bereziak egiteko prestatua.

SASen ekintzen kronikan maiz aurkitzen dira nahasturik ele-  
mentu horiek eta beren inguruko elementu ultraeskuindarrak,  
sarritan merzenario agentziak tartean direla. Bere fundatzaile-  
leatako bat aurkitzen dugu 1970ean Kadhafi agintetik bota-  
tzeko operazio baten antolatzaile, nahiz eta pikutara joan zen.  
CIArekin loturik berak dira Angolan MPLAren kontrako gerri-  
llak antolatutako zituztenak, eta hainbat holako.

Afrikako armadarik sendoenetan SASetatik pasatako bu-  
ruak aurkitzen dira. Esperientzi trukea. Horrela, 1977tik au-  
rrera «ulsterirazio» politika azkartzeko lana hartzen duena, Ti-  
mothy Creasy, Kenya, Aden eta Oman-eko jazarkundeen kon-  
tra aritua da, hango nazio askapen mugimenduen kontra.

## Pittinka SAS «Ulster»en sartuz

1970ean kontserbadoreek agintea hartu zutenean erabaki  
zen SASak Irlandara igortzea. Aitzakia ere eskura zuten, uztail  
horretan eman zelako IRA eta ingelesen arteko borrokarik go-  
gorrena, Belfasteko kaleetan.

Eliteko soldadu horien entrenamendua komandoena da: sa-  
botajea, borrokak, lehergailuak, zifraketa eta dekodifikatzea...  
Torturak ikasteaz gain elkarren artean praktikatzen dituzte;  
prentsa britainiarrean argiti ratua da soldadu bati bere entre-  
namenduan «poltsa» famatua gehienez ere 7-10 orduz jarri  
dakiokeela. Baina Irlandako historia eta politikaz ere jatzten di-  
ra, ghetto nazionalisteta. o soziologia, gaeliko pittin bat eta  
IRAren organigrama ikasten dituzte. Irlandako etxe eta kaleen  
tankeran harri-kartoez eraikitako etxeen artean entrenatzen  
dira, eta uretan patruilatzeko ere bai.

SASak piskana hasi ziren lanean Ipar Irlandan, baina



1971erako nazionalistek «usaindu» zuten aldaketa bazetorrela, zibilez jende bitxia zebilen beren kaleetatik, autodefentsa talde batek bat harrapatu zuen... Zalantzak urrian suntsitu ziren, Dublinen hogeitamar urtetako gazte batek, David Seaman izeneko batek, Special Air Servicekoa zela salatu zuen prentsaurreko batean, eta IRAren izen ona zikintzeko leherketak antolatzen ibili zela. Hiru hilabeteren buruan, Iparraldean agertuko zen hilik.

Bizirik jarraitu balu, agian esplikatuta ahal izango zuen ordurako infiltrazio prozesu guztia martxan zegoela, SASeko asko jatorri irlandesa dutenen artean biltzen direlako. Ingelesek

«*Military Reconnaissance Forces*» (MRF) direlakoetan biltzen direla, eta informazioa biltzeaz gain sasi-komandoak ere prestatzen dituzte, IRAren infiltratzeko.

### **Labandria eta masaje thailandesak**

1972ko urriko goiz batean komando errepublikano batek labandria bateko kamioneta bat metrailatu zuen. Furgonetako tetxuan bi gizon zihoazen, eta aurrean «anai-arreba» batzuk, goizero etxez etxe arropak biltzen zituztenak. IRAk informazio efikazak zituela demostratua zuen.


Tetxuan zihoazenez etxeen, biztanleen, kaleen zein autoen argazkiak egiten zituzten, inork ikusten ez zituela, nahi haina konbertsazio grabatzeaz gain. Eta labandria, bestalde, informazio iturri oparoa zen: gizona falta zen etxe batean gizonetako arropak agertzen baziren, edo egun batetik bestera arropa pila asko gehitzen bazen, edo aztarna berezirik bazuten... Aurrean zihoan emakumea, polizia bera ere, bakarrik salbatu zen.

Baina egun eta ordu berean masaje thailandesak eskaintzen zituen saloi batean MRFko beste bi hil zituzten. Ingelesek hainbat jende txantajeatua zuen saloi hartan lortutako argazki eta filmeekin.

Ordurako, dena den, MRFetako taldeak nahi bezala zebiltzan Ipar Irlandako kaleetatik. Batetik informazio xeheak bilduz, martxan zegoen informatizazio prozesurako. Aldi berean, komenigarri ikusten zutena egiteko askatasun osoa zuten, politikoez eta komunikabideez erabat babestuko zituztenaren ziurtasunarekin. Armak ere IRAk erabiltzen zituzten berdinak astintzen zituzten, «*Thompson*» zaharrak batik bat. Hilketak baino gehiago egin zuten, baina auzi guztietan libre atera ziren, baita agenteen hitzak gezurtatzen zituzten lekukoak zirenean ere.

### **Gerra zikinari ekiteko une aproposa**

MRF horiek Kitsonen bere liburuan proposatuak zituen. «*Arazo hau tratatzeko modu efikaz bat bi funtzio hauen beteatzeko unitate bat moldatzea litzateke: informazio sarea sortu edo sendotzea eta medio bereziz informazio bilketa operazioak egingo dituzten gizon entrenatuak prestatzea. Edozein momentutan mugitu ahal izango liratekeen ofizialek osatuko luke holako unitate bat. Komandante edo kapitainak izango dira gizon horiek, eta gradu apalagotako laguntzaileak eraman ahal izanen dituzte, txofer. Unitatea handi samarra izan daiteke, eta kasu horretan hiruzpalau talde eduki ditzake, bakoitzean komandante bat eta kapitain batzuk direla, eta gainera teniente-koronel bat edukiko lukete». Autonomoki jokatuko luketelarik, gainera geratuko litzateke SASen organigrama, edozertarako listo.*



**Populazioen kontrolerako, gerra psikologikoa, unitate berezien erabilera, informazio taldeen hipertrofia, teknologia berri baten garapena.**



## Larrun, 1985eko abendua

Holako unitateen zeregin nagusietako bat pseudo-gang edo sasiekintzak burutzea da, eta 1972an ikaragarri ugaltzen dira «erlijio asesinaketak» deituak. IRA, izan ere, sekula baino indartsuago ari zen. Prozesurik gabeko espetxeratzea aurreko urtean jarri zen martxan, eta urtarrilean Derryn ingelesek probokatu zuten «Igande Odoltsua»k (paratxutistek hamalau manifestante hil zituzten kalean) errepublikanoen babes eta nazioarteko begiratu ona lortu zituen erakundeak. Urte horretan bertan tregoa unilaterala erabaki zuten adar Ofizialekoek; Probisionalek, aldiz, tregoa bilateral bat negoziatzeko abilezia erakutsi zuten. Nazionalistek beren auzoak barrikadaz inguratu zituzten, eta «lurralde askatu» bihurtu.

Ingelesak, errepublikanoei indar militarra kendu eta ghet-toetan sartzeko, asesinaketa kanpaina bat asmatu zuten. Helburu garbi batekin: arazoa berriro ere 1969ko itxurara bihurtu zedila, hau da, komunitate arteko gerra eta Armada ingelesa bien arteko bakegile neutroa. Guztia «*Motorman*» operazioari begira.

### Operazio benetan bereziak

125 zibil hil ziren 1972an, eta ia berrogei bat uztailen, gero ikusiko dugun «*Motorman*» operazioa baino lehentxoago. Hildakoen artean, 90etik gora katolikoak, baina protestanteak ere katolikoek hilak izan zirenik ezin da esan. Askotan gorpuk mutilatuak agertzen ziren, populazioaren ikararako. Historiak erakutsi du atentatu gehienak «pseudo-gang» horietarik zirela.

Hiru motatakoak izan ohi ziren pseudo-gang horien egileak:

- Armada ingelesko unitate espezialak. Zenbait leherketa egin zuten Hegoaldearekiko muga ondoan, IRAk bere erasoak handik egiten zituela sinesterazteko.

- Ulster Volunteer Force bezalako talde paramilitar ingelesak, protestante fanatizatuenak. Armak bezala informazio eta entrenamendua polizia eta militar ingelesek ematen zieten.

- Gang mistoak. Kenyan erabiliak zituen Kitsonek «kontra-gang» direlakoak: populazio barruan rekrutatutako talde armatuak, lana erabat autonomoki egiten dutenak baina Armada britainiarraren kontrol estrategikopean.

Hirugarren hau erabiliko dute nagusienik britainiarrek, soldaduak horretara jartzea arriskugarriegia delako Armadaren izenarentzako, eta talde paramilitar lealistak kontrolaezinegiak izan daitezkeelako. Nazionalistak hiltzera lealista fanatikoak bultzatzea errez izanik, alderantzizko lanean saiatu ziren beste zenbait.

Horien artean famatuenetako bat Shay O'Brien, jatorriz katolikoa bera. 1975ean IRA Probisionala tregoa zegoenean, ofizialen eta hauen eszizio zen IRSP eta honen adar PLAREN ekintzak probokatzeko ibili zen, nazionalista eta protestanteen

arteko zatiketa sortzen zuten hiltzaileak hiltzeko «informazioak», armak eta politika berri bat eskainiz, Britainia Handian omen zegoen talde ezkertiar baten izenean. IRAk hil zuen, Ian Paisley apaiz protestantea hiltzeko informazio guztia eskaini zionean.

### Hilketa bidez gatazkaren funtsa zikindu

1972an Dublingo parlamentuak IRAren kontrako espezio lege bat bozkatzeko zuten egunean bertan bonbak lehertu ziren hiriburuan, bi txofer hilaz eta jende mordo bat zaurituz. 1974eko maiatzean, Londresek protestante eta katolikoaren artean proposatzen zuten aginte banaketaren kontra lealisten antolatutako greba orokorrean, bonbaz betetako autoak lehertu ziren Dublinen, eguerdian, eta 30 bat zibil hil ziren bertan. Esan behar da atentatu mota hori UDAko protestanteek erabiltzen zutelako, eta une hartan erakunde bide politikoagoak proposatzen zituzten bi gidari zikintzeko pentsatuak ziren, Dublinen IRAren kontrako jarrera gogortu erazteko haina.

Zerbitzu britainiarrek, beraz, protestanteak ere garbitu zituzten. Horren kontra protestak azaldu ziren, «Ulster Citizen Army» izeneko talde batek sinatuak. UDAko buru bat, Tommy Herron, jotzen zen horren sortzailetzat eta 1973an auzo protestantearen erdian akabatu zuten. Lealista guztiek, Paisley barne, agente britainiarrek hil zutela salatu zuten. Geroztik joan zen argitzen nolabait Errepublikanoekin harremanak lotuz ari zela. Ingelesen gustokoa ez izan.

Beste SAS ohi batek ere, Alber Baker izeneko batek, aitortu zuela UDAn infiltratu zela, eta lau katoliko ingeles baimenarekin hil zituela esplikatzeko gain Herron protestantea SASek hil zutela deklaratu zuen. Baina 90 urtetako espetxe zigorra jaso eta berehala desagertu zen espetxetik. Britainiarrek protestante gehiago ere hil zuten, baita talde paramilitarretako partaideak izanik nolabait errepublikanoetara gehitxo hurbildu zirenak ere.

1972tik 1975era luzatzen da asesinaketa kanpaina gogorra. Kitsonen eskemari jarraituz, populazioa erresistentzi erakundeekin nekatzera eraman nahi da, eta jendeak normalizazioa itzultzeko gogoia izan dezala, horretarako polizia eta armadaren zaindaritza onartuz. Eta atzerriari begira, laino bat hedatzen da, Irlandan gertatzen dena erlijio-gerra irrazional bat denaren irudia, hango gatazkaren sustriak ulertezin bihurtuz.

### Eta tregoarekin iristen dira SASak

IRA Probisionala 1975ean tregoa batean konprometitua zegoelarik, britainiarrek «ulsterizazioari» ekitea erabakitzen dute. Horretarako Armadaren ordezkari *Royal Ulster Constabulary* bertako polizia, eta UDRko errejimentuek hartuko dute protagonismoa, eta militar erregularren ordezkari SASetako unitateak.

Urtarrilaren 10ean, gauetz, iritsiko ziren Ipar Irlandara 150 gizon, frontera bezala hirietan zehar barreiatuko direnak. Tresneria sofistikatu bat daramate berekin: bost kilometrotako inguruan infrarrojo bidez pertsona detektatzen duen IRIS sistema, hamar kilometro harrapatzen dituen radarra, armarik aurreratuenak, irudi intentsifikatzaileekin...

Mugetatik uniformeaz jantzita patruilatzen dute SASek, eta hirietan paisanoz, gorago aipatu ditugun MRFen estiloan. Mugetatik dabiltzanek ez dute inolako oztoporik Irlandako Errepublikan sartzeko, eta ordura arte ere frontera gaingiditza askotan salatu zen arren, orain lasai iragaiten ziren bai ustezko militante bat bahitzera, edo ihesi zihoazenen atzetik. Izan ere, SASak Irlandara iristearekin batera erabaki zuten britainiarrek hobe zela auzirik gabeko espetxeratzek gelditu eta militanteak eliminatzea. Horrek esplikatzen du, beti ere informazio onegiarekin jokatzen ez zutelako, ingelesek hainbeste «huts» egitea («errugabeak» asesinatuz), eta baita inolako errespetorik ez izatea, ez soldadu britainiarrek armak erabiltzeaz ikasten duten kodigoari eta ez lege internazionaleri.

Mugako pasabiderik egokienetan zulo kamuflatuak egiten zituzten, gauerako bereziki prestatutako periskopioz bijilatze-ko, eta sistema sofistikatu egiten zuten lana. Hirietan berriz paisanozko militarrek beti aidean zebiltzan helikopteroekin kontaktoan zeuden, eta soldaduak kamuflatu bizi ziren etxeetan.

Bere militarrek horretan erabiltzen dituenik sekula ez du onartu Armada britainiarrek, baina IRAk 1977ko maiatzean Nairac kapitaina bahitu zuenean, onartu behar izan zuten, berak interrogatorioetan frog handiegiak aitortuko zituenaren beldurrez. IRAk hil egin zuela deklaratu zuen arren, badira norabait, informazioen truke, ihes egiteko aukera eman ziotela uste dutenak, ez bait zen hori izango IRAk militar britainiar bat hola tratatu duen lehen aldia.



**Jendeak normalizaziora itzultzeko gogoia izan dezala, horretarako polizia eta armadaren zaindaritza onartuz.**

Larrun, 1985eko abendua

# GERRA PSIKOLOGIKOA PROPAGANDA BELTZA

Aljerian ikasitakoagatik azpimarratzen du Frank Kitsonek gerra psikologikoa Irlandako gerra bereziaren barruan integratu beharra. IRAko ekintzaile bat hiltzea, izan ere, ez da garrantzikoena. Determinantea zera da, bakea eta ordena zaintzeko hura hiltzea beharrezkoa zela onartzera bultzatzea populazioaren zati bat.

Horretara lehen baldintza komunikabideen konplizitatekin kontrolera pasatzea da. Prentsaren militarizazioa. Hiru mailatan egin behar da lana, Kitsonen aburuz. Lehenik, espezialistek egingo dituzte baloraketa zehatzak eta gero gobernuburuari eskainiko dizkiete, politika bat formulatzeko. Bigarrenik, politika honek berekin ekarri behar du propaganda materiala: filmeak, irratsaioak, egunkarietako artikulak... Eta hirugarrenik, material hori komunikabideetatik modu intentsibo batean barreiatu behar da. Guzti horretarako beharrezkoa da operazio psikologikoak burutuko dituen talde espezialdua, zuzendaritza zentral batekin funtzionatuko duena, maila bakoitzeko ekintzak eta beharrezko materialeak zehazteko.

## Tradizio luzea du britainiarren propaganda beltzak

Adolf Hitlerren zita bat erabiltzen du argigarri Roger Faligotek: «Ingalaterran, beste gauza bat ere ulertua zuten gainera, arma izpirituzko honen arrakasta bakarra bere erabilera masibo batek ekarri dezakeela, eta arrakastak askoz gaintzen dituela egindako gastuak. (...) 1915. ean ekin zion gure arteko propagandari etsaiak (britainiarrek). 1916tik aurrera intentsifikatu egin zen, 1918an uhin bat izateraino iritsiz. Piskanaka, gure armada etsaiak nahi zuen bezala pentsatzen hasi zen».

Propaganda toneladaka bota zen Alemania gainera, propaganda beltzaren episodio ahanzezina haieran. Pentsa zertaraino iritsi ziren: 1916ko irailaren 12an «Daily Mail» egunkariaren zenbaki gezurrezko bat bota zuten, eta alemanek uste izan zuten britainiarrak Belgikan desenbarkatzen ari zirela. Lan horietarako, «War Office» edo gerra bulegoak 6.000 (sei mila, bai) langile zituen.

Geroztik, boltxebikeak eta nazionalista irlandesak izan ziren gerra psikologikoaren helburu nagusiak, baina pittinka gero eta aplikazio zuzenagoa aurkitu zuen Britainia Handian bertan



Egunkarietan haurrak militarrekin jolasean erakusten zizkiguten britainiarrek kontrolatzen (eta pagatzen) zituzten kazetariek.

ere. Historiara pasa da 1924ean, hauteskunde aurretik, zerbitzu sekretuek antolatu zutena. Egunkari batean Internazional Komunistaren izenean Zinoviev-ek komunista britainiarrei borroka armaturako eta subertsiorako deia egiten zien. Ez bakarrik komunistak, laboristak ere ongi izorratu zituzten gutun faltsu harekin.

## Irlandaren historia bera debekatua zegoeneko garaian

Irlandesen kontrako propaganda betidanik erabili dute britainiarrek, saxoitarrek irla inbaditu zutenetik. Inbasioa justifikatzeko bertakoen izakera basatia argudiatu beharra zeukaten, eta jadanik XVIII. mendetik hasita artikulak eta karikatura ikaragarriak argitaratzen dira: irlandesak ero eta mozkor agertzen dira, erdi gizon erdi tximu marraztuak, muturra alkoolak gorri-

tua... Ez da ahaztu behar, bestalde, Irlandako historiari buruzko liburuak zein gaelikoa ikasteko manualak galeraziak zeudela. Giza eskubideak beste inork baino lehen ezagutu zituzten ingelesek...

Baina beste aldetik, irlandarrek antolatutako mugimendu nazionalistak ahultzeko gezurrezko talde txikiak eratzen dituzte zerbitzu sekretuek. Lehendabizikoak 1882an bertan aurkitzen ditugu. Atentatuak antolatu zituzten, eta errefuxiatu pila bat bizi ziren Paris hartan kazeta sasi-irlandesak argitaratzen zituzten. Agente horien artean Parnell, sasi-kazetaria, eta gero historian figura erromantiko bezala geratu dena.

1916ko iraultza nazionalistaren garaian urkatu zuten Roger Casement buruzagiaren egunkari intimo faltsu bat ere argitaratu zuen orduan Naval Intelligence izeneko zerbitzu militarrek, bertan Casement homosexual zikin gisa agertzen zelarik. Eta holakoak 1919-21 ean, independentzi gerrarekin, ugaritu egin ziren: liburu batzuek errepublikanoak alemanekin lotzen zituzten, beste batzuek boltxebikeekin, Estatu Batuetan Irlandesen jokabidea Hegoaldeko sezesionisten gerrarekin gonbaratzen da, etabar. Sinn Feinekoek egiten omen zuten juramentu bat ere asmatu zuten ingelesek, sekulako astakeriak zekarzkiena: «(...)Eta Eliza eta fede Erromatar Katolikoaren partaide garenez, gure fedea onartzen ez duten guztiak suntsituko ditugu, gure Aita Sainduaren esker on guztiarekin».

### Ekintza politiko eta militarrek laguntzeko operazio psikologikoak

1973an hasita, armadako eta administrazio zibileko kargu britainiarrek «psyops» edo operazio psikologikoetarako irakaskuntza hartzen dute. Hala definitzen dira NATOren ikastaroen barruan egiten diren «psyops» horiek: «*Gerra guztietara eta kontra-intsurjentziara egokitu daitekeen tresna flexible*».

Bere helburuak hola definitzen dira manual batetan: «*Bere helburu nagusia beste medio guztien ahaleginak laguntzea da, bai militarrek eta bai politikoak; etsaiaren kontra erabiltzen dira gerra egiteko bere gogoia ahultzeko eta ahalmena murrizteko*». Hiru mailatan eramaten da: estrategikoa, taktikoa eta sendotze psikologikoa.

«Psyops» horretarako jendea dozena bateko taldeetan banatzen da, buru ofizial bat dutela. Afera honi buruzko seminario sekretuak antolatzen dituzte, eta aukeratuenak Estatu Batuetako Fort Bragg-etik ere pasatzen dira, gerra berezarako han dagoen eskolatik. Marineen zentro den hori John Kennedy-k eraiki zuen, Vietnamen pentsatuz. Ingalaterran horretarako den eskola berezitik, dena den 1973tik 1976ra ia bi mila ofizial eta ia 300 zibil pasatuak ziren. Alemanian, dena den, urrutirago doaz, eta gerra psikologikorako 3.000 ofizial enplegatzen dituzte.

Irlandan horrela, Informazio Politikorako Unitatean 172 pertsonak egiten zuten lana, prentsarekiko harreman guztia (ekintza militarren informazioa ematea, horien artean) beren esku zegoela.

### Sasi-erreibindikazioak eta despolitizazio saioak

Hasteko, gerra psikologikoaren arduradunak IRAren nean propaganda gezurrezko bat ereiteari ekin zioten; horretan proboek «aitortzen» zuten ingelesak gerra irabazten ari zirela, populazioan etsipena hedatzeko. «*Asesinoen mandamentuak*» izenekoak agertzen ziren kaleetan goizetan: «*Tortura, balak eta bonbak, horra herria gure alboan edukitzeko bide bakarra*», «*Gizonak, emakumeak, haurrak, berdin da nor hiltzen dugun, kopurua da inportantea*»... IRAri gaizki ateratako ekintza baten ondoren sasi-erreibindikazioak zabaltzen dira, auto-kritika ordeztu hildakoarekin errukirik ez dela erakusteko, adibidez, eta hola lortzen da ordu batzuetan bederen errepublikano moderatuak zalantzatan murgiltzea, jendea detentatzeko denbora egokia.

Egunkarietan gezurrezko kartak argitaratzen ziren, «*Biolentziarekin nazkatuta dagoen ama batek*» eta antzeko sinadurekin. 1972tik, errepublikanoen buruzagi historikoen erretratuak, kaleetako ormetan margotuak, zurutu eta modako artisen erretratoekin betetzen zituzten. Giroa despolitizatze operazioak.

Prentsan ere argazki bitxiak hasi ziren agertzen, soldaduak hurrekin jolasean edo berriketan, esate baterako, benetan ikustea oso zaila den eszenan. Behin edo behin politiko lealista radikalen kontrako operazio psikologikoren bat prestatu zuten, baina batez ere errepublikanoak ziren eta dira britainiarren prolema, eta operazio horien ihizia. Maria MacGuire-ren kasua aski argigarria da.

### Maria MacGuire eta IRAko radikal eta moderatuak

1972ko udazkenean IRAk adierazi zuen handik aurrera ez zuela elkarrizketarik onartuko. Ordurako, proben buru kontsideratzen zen *Sean Mac Stiofain*-i egin omen zitzaion elkarriketa luze bat argitaratu zuen «Observer» egunkariak, eta Sinn Feineko lehendakari *Ruairi O Bradaigh*-en beste bat moldatua agertu zen «Sunday Times»-en. Biak gezurtatu zituzten nazionalistek. Ordurako Kitsonek hitzaldi batean adierazia zuen IRAri gailentzeko barruan eszizio bat sortu erazi beharra zegoela.

Estraina, estatu goreneko buruzat jotzen zen Mac Stiofain zegoen IRAtik eliminatu beharra. Bere biografia haizatu eta okertzen zuten artikulua hasi ziren argitaratzen egunkarietan, eta Maria MacGuire azaldu den.

Bere hogeitahiru urtetan, unibertsitari, Sinn Feinen sartu zen 1971 ean, oso ezkertiar. Eta bere ahalmenaz gain asko baliu izan zioten bere gorakadan Daithi O Conaill-ekiko harreman beroek. O Conaill beti aurkeztu izan dute mugimendu errepublikanoa erakunde politiko gisa sendotzearen bultzatzaile eta Londresekin negoziaketa posible batzuei begira moderatuago bezala. Gero argitu da neskaxa sekula ez zela IRAkoa izan, baina mitinetan hizlari bezala hartu zuen parte.

Urte horren bukaera aldean, gaizki atera zen arma ekartze batean hartu zuen parte, O Conaillekin, eta errepublikanoen arteko tirabiren artean, desagertu egin zen. Denbora gutxira azalduko da «Observer»eko orrietan, «*Sean Mac Stiofain salatzen dut*» artikuluaekin, eta liburu bat ere osatuko du. Liburu horretan Mac Stiofain gogor bezala ageri da, eta Maria MacGuirek bere maitaletzat jotzen duen O Conaill gozoagotzat, lehenengoa botaz gero negoziatzeko prest egongo litzatekeelarik. Gainera O Conaill Mac Stiofain hiltzeko asmoak omen zituen. Neskak gauzak ongi prestatu ditu, eta probetatik alde eginaz britainiarren metodoen kontra dagoela adierazten du.

Lan ona egin zuten ingelesek. Mac Stiofainek berak aitortu behar izan zuen, urteen buruan argitaratu zituen bere memoriatan, britainiarrek beti egindako ahaleginez aparte MacGuirek bazuela zerbait gehiago: sekula bere eskuetara iritsi behar izan ez zuten informazioak zituen, erakunde barruko iturri onen baten konfidentzietatik atereak.

Kazetari irlandes batek salatu zuen emakume gaztearen egia: bere artikuluen truke dirutza eder bat ordaindu ziola «Observer»ek, egunkari honek Foreign Officetik subentzio mardul bat jasotzen duela, eta bere liburua kolokatu zuena informazio zerbitzuetako buru bat zela.

### Prentsaren kontrol osoa

Kasu horrek prentsa britainiarraren konplizitatera garamatza. Bai lau egunkari «kalitatezkoak» («Times», «Observer», «Daily Telegraph» eta «Guardian») eta bai «popularrak» deitzen direnak, guztiak daude britainiarren planen eta informazio beharren zerbitzuan. Beren arteko diferentzien funtsa zera da, ea Irlandan banatzen diren ala ez; eta hasiera batean objetiboago jokatzen hasi zen «Guardian»ek berak oreka guztiak aspaldi galdu zituen. Egoera horri erantsi behar zaio lpar zein Hego Irlandan gehien saltzen diren egunkariak britainiarrak direla.

Egunkarietan, arazoaren osotasunaren ulerpenean galerazteko, gertakizunak banaka eta elkarrengandik berezirik ematen dira. Eta kazetariak berak, poliziaren bertsioak ontzat ematera behartuta, lealisten ekintzak berak IRArenak balira bezala eskaintzera iristen dira, soldata «extra» kobratzen dutenak asko izateaz aparte. Hala burutzen da eskema: *gerra bat dago*



«txintxoek» eta «gaiztoek» (iraultzaileen) artean; bien erdian baketsuak daude, moderatuak, irtenbide bat eskaintzen dutenak; baina gero «ikaratuak» daude (lealisten) negoziaketetatik baztertzen dituztelako protesta egiten dutenak. Txintxoak eta beldurtuak behar dira lagundu, beraz.

Kontrolak hizkuntza bera harrapatzen du, noski, eta errepublikanoek «nationalist» esaten duten lekuan bertako prentsak «catholic» idazten du, Hego Irlandakoak bezala, ingelesak «roman» esatera iristen direla. Horrekin batera, atzerrirako zein informazio mota banatzen den begiratu behar da. Oso egunkari gutxik dituzte korrespontsalak Belfasten, eta dituzte-

## Ipar nahiz Hego Irlandan, nazionalistak komuni- kabideetatik mintzatu ezin

Hainbeste erreztasunekin, prentsa britainiarrak sekulako astakeriak argitaratu izan ditu, nahiz eta gero lekukoek gezurtatu ia inoiz zuzendu izan ez direnak. Horrekin batera, ghetto errepublikanoetan sartzeko sarritan prentsa karnetak erabili izan dituzte britainiarrek, muga inguruak zaintzeko bezala, oztopo handirik gabe eskuratuak.

Duela gutxi polemika baten erdian egon den BBC katea, berri, militarizatuz etorri da, Irlandari dagokion guztian zentsura erabiliz. Aspalditik erabili izan da zentsura zenbait arazo puntualetan, baina 70eko hamarkadatik eskandalagarria zen Irlandan suertatzen zena, eta zenbait kazetari ausartu zen 1976an publikoki salatzeraz telebista komertzialak eta BBC kontrolatzen dituen IBA erakundeak tratatu bat egin zutela, «etsaiaren» eritziak sekula ez entzun eta ez ikusi ez zitezen. Ugariak izan dira eman gabe utzitako filmeak, enkarguz eginak izan arren. Eta Roger Faligotek eskaintzen du telebista ingelesetako kargu zerrenda bat, zerbitzu sekretuei lotutakoa.


Estatu Espainoleko Legedi Antiterrorista Europan posible ez litzatekeela uste dutenek jakin behar dute, gainera, poliziari informazioa ezkutatzearen delitu soilagatik delitua egiten dute kazetariak. Berri asko, gainera, «D» izendatuak daude, konfidentzialak direla adieraziz: informazio zerbitzuetako buruen izenak, horiek erabiltzen dituzten metodoak eta ekintzak eta abar, ezin dira argitaratu. Kitson-en manuala aurkitu zieten bi kazetari, esate baterako, auziperatu egin zituzten 1974ean. 1978an beste bi kazetari eraman zituzten juezen aurrera, zerbait argitaratu zutelako enbaxada sobietarraren komunikabideak interferitzen zituen zerbitzuak erabili zirela IRAren bonbak behar aurretik leherterazteko, bai beren eskuetan, bai erruga-been aurrean.

Errepublikanoen astekariak, «*An Phoblacht—Republican News*»ek, sarritan ezagutu du poliziaren eta soldaduen bixita, eta baita detentzio ugariak ere. Harrigarriena, ordea, zera da: zentsura are gogorragoa suertatzen dela Hego Irlandan. Sinn Feineko buruzagiek ezin dute ez irratiz eta ez telebistaz hitzegin, eta I.R.A.ren dossier bat argitaratzen zuen astekari bat oso-osorik bahitzera iritsi dira. Ez hori bakarrik, Ipar Irlandako torturez Europako Auzitegiak egindako dossierra argitaratzen zuen «Hibernia» astekari liberalak **ORRI BAT ZURIRIK ZUELA** plazaratu behar izan zuen!

**Egunkarietan  
gezurrezko gutunak  
argitaratzen ziren,  
«Biolentziarekin nazkatuta  
dagoen ama batek» eta  
antzeko sinadurekin.**

nek gehienetan popularekin oso harreman gutxi dute, informazio zerbitzuetako ofizialekin topo gehiagotan egiten dutelarik. Gehienetan, dena den, Londresko korrespontsalak hartzen du berria, komunikabide ingelesetatik ia beti. Edo agentziaz iristen denarekin konformatzen dira.

Baina ez da hori kontrolbide bakarra. 1975ean Washington Post egunkari amerikarrak jakinerazi zuen Londresko egunkarietako kazetarien erdiak Inteligentzia Zerbitzu edo MI6etik ere jasotzen zuela bere soldata. Britainiarrek gogor gezurtatuko dute informazioa, baina batzuetan influentzia hori ematen dela ukatu gabe.



## INFORMAZIO ZERBITZUEN GERRA

Britainiarren inteligentzi zerbitzuak hiru dira, funtsean: Defentsa ministraritzaren esku dagoen «*Defense Intelligence Staff*», Foreign Office edo kanpo ministeritzaren menpe dagoen MI-6, eta Barne ministraritza edo Home Officek duen MI-5. Ikusten denez, azken bi hauen MI siglek «*Military Intelligence*» esan nahi arren, gobernuaren menpekoak dira, teoriarik bederen.

### Britainiarren espioitza sarea

Kontra-espioitza MI-5aren lana da, barne seguritate guztia bezala, eta hortik bere interesa sindikalistak, ezkertiarrek, komunistak, baita laboristak ere, Eskozia nahiz Galesko nazionalistak, irlandesak, ikasleen liderrak, errefuxiatuak, etabar, zaintzeko. Harold Wilson, lehen ministraria bera kexatu zen publikoki, MI-5ak bijilatatu zuelako.

MI-6 «*Secret Intelligence Service*» edo SIS siglekin ere ezagutzen da. Teorian bere egoitza duen arren, beste ministraritza guztietan sakabanatua dago. Hego Irlanda bere planetan sartzen da, eta harrigarria da zeinen erreza daukan han lana: erruz dira erretiroa hartuta han bizi diren militarrek, familia ingeles-irlandesak ugari diren bezala; burgesia ingelesak ere maite du bere bakantzak Irlandan egitea. Mundu osoan hedaturik dagoen espioitza lan arruntaren ondoan, Irlandari dago-kionez bere lana da erresistentziaren kontrako propaganda antolatzea, horniketa sistemak ezabatzea, aliantza politikoak ezinezko bihurtzea, onarpen diplomatikoa bezala.

**Errepublikanoek beren metodoak eta egiturak aldatu behar izan zituzten, britainiarren eraso berriari eusteko.**

Hirugarren erakundea «*Defense Intelligence Staff*» edo DIS delakoa da, militarrena erabat, eta aipatu ditugun hirurak «*Joint Intelligence Committee*» delakoak koordinatzen ditu. Guzti horien aldamenean ez da ahaztu behar Special Branch delakoa, Scotland Yarden adar dena eta espreski irlandesen kontra lan egiteko joan den mendean sortua. Holding guzti honen oso emaitz aberatsak eman izan dizkiete sobietarren kontra, baina irlandesen kontra lana ongi burutzea nekezagoa suertatu zaie beti, populazioaren baitan ongi errotutako mugimendua izaki.

### Mende erdi bat gerra zikina egiten

1855ean, Krimeako gerra bukatzean, sortzen dira informazio zerbitzu militarrek, gaurko zentzu modernoan, eta geroztik Irlandan zuzenki inplikatuak daude. Horrek ematen du britainiarren sofistikazioaren maila, eta IRAk horri ihes egiteko lanean duen esperientziaren neurria ere.

1920an sekulako zabaleroa zeukan orduan «*Intelligence Service*» deitzen zenak Irlandan, eta beretzako garestiegi izateaz gain IRAk nahiko ongi infiltratua zeukan; herrietan zituzten koartelak lehertzen zituzten, ofizialak hilik agertzen ziren, eta nazionalistek askotan informazio oso zuzenak eskuratzen zituzten.

Independentzia gerraren garaian oso informazio zerbitzu ona zuen IRAk, eta bere koadro asko lehendik armada ingelesean arituak ziren. Horregatik ekingo diete britainiarrek metodo berriei. 1920an 2.300 «*Black-and-Tans*» eta 1.500 auxiliar iristen dira Irlandara, terrorea erabiliz.

Special Branch-ek berriz 1913tik informazioa biltzeko bezala Sinn Fein eta IRARi erasotzeko unitate bereziak jartzen ditu martxan, heriotz eskuadroiak ere, «*Murder Gang*» izenekoak, antolatuz. Ofizialek «*Anti Sinn Fein Societies*» eratu zituzten, «*hiltzen duten soldadu bakoitzeko bi errepublikano garbitzeko*». Joan den hamarkadan britainiarrek hainbeste erabiliko zituzten «*pseudo-gang*» direlakoak ere, nazionalisten izen ona zikintzeko buruak, 1920tik hasten dira erabiltzen.

## Nazionalisten kontraespioitza indartsua

1920an Dail Eireann parlamentu klandestino eta bere armada IRA indartzen ikusirik, britainiarrek «*The Particular Ones*» izeneko talde berezia sortu zuten, gehienak Egipton ikasitako agenteak zirelarik, eta hortik zetorkien «Kairoko Gang» izena ere. Helburua: buruzagi errepublikanoak akabatztea.

Talde txikitan infiltratu ziren Dublinen, eta militarren bertako buruekin harremanik ez zuten, zuzenki Londresekin lotuak zeudela. Irlandes jatorrizko edo han urte askotan bizitako agente koadrila osatzen saiatu ziren. Eta urritik hasita, hamazazpi errepublikano garbitu zituzten.

Irlandarrek, aldiz, beren informazio sare zabala zeukaten antolatua, buru Michael Collins zuena. IRAren brigada bakoitzak bere informazio departamentua zuen, eta dena zegoen Dublinen zentralizatua. Bere egoitza nagusia, hain zuzen, britainiarren zentro nagusia zen Gaztelutik hirurehun metrotara omen zegoen. Jende mordo bat zeukaten infiltratua britainiarren artean, bai administraritzan eta bai polizian, eta berri zifratuen kodigoak kontrolatzeraino iristen ziren. Informazio zerbitzuak bazuen bere eskudroi autonomia ere, agente ingelesak eta salatariak garbitzeko.

«Kairoko Gang» horren berri iritsi zen IRArengainaino, eta pittinka bildutako informazioaz baliatuz, azaroko igande batez, agenteak zeuden etxe eta hoteletan sarturik, 14 akabatu zituzten. Arratsalde hartan, Croke Park-en futbola ikusten ari zen jendeari erasoko zioten ingelesek, mendeku gisa, «Igande Odoltsua» izenez historiara pasa den hartan.

## Artikuluetatik familietara, dena sistematikoki aztertu

1969an britainiarrak informazioari dagokionean ia esku hutsik zeuden Ipar Irlandan, eta juxtu orduantxe fenomeno bitxi bat ari zen gertatzen: inguruko herrien aldean beti ahulago ibilia zen Belfasten errepublikanoak indarrean zebiltzala. Lealisten fitxero zabalak zituzten, oso puztuak, auzirik gabeko espetxeratzea bultzatzeko, baina militanteak xuxen akabatzeko ez zuen askorik balio.

Espezialistek hasi behar izan zuten Irlandari eta IRAri buruzko informazio guztia pilatzen, gaelikoa ikasten beste batzuk, Ofizialen eta «proboen» arteko ezberdintasunetan aztarrika. Bankuetako kontuak arakatzen ziren, atzerriko askapen mugimenduekiko harremanak, lotura familiarak, politikoak, eta abar, sistematikoki hasi ziren aztertzen.

Kontserbadoreen gorakadarekin, Kitson iritsiko da eta informazio anarkia honetan ordena pittin bat jartzen hasiko. Inteligentziako ofizialek argazki artxiboak ordenatzen dituzte, interrogatorioen analisisa, IRAren organigrama berregiten. Eta

lan horietan prentsa abertzalea oso tresna baliagarria suertatzen da, eta goitik behera aztertzen dira, artikulua analizatuz, seudonimoak ezagutuz, gaelikozko artikulua itzuliz, diskurtsoak analizatuz. Ahalegin horri helikopteroa, bideoa eta informatika gehitzen zaizkienean, informazio zerbitzuak irauliak daude.

Intentsitate ahuleko informazio bilketa honen ondorioek IRAren barne egituraketan ere aldaketak erakarriko dituzte. Ordura arte batailoi eta konpainia lokaletan antolatua zegoelarik, jipoi gogorak jasan zituzten errepublikanoek, lekuan lekuko populazioak informazio sobera zuelako. FLN arjeliarraren egituren antzekoak hartu behar izan zituen.

## Littlejohn anaiak edo probokazioa azken mugaraino

Hego Irlandako gobernuak IRAren kontrako lege gogorak onartu zituzten, kanpaina sofistikatu bat antolatu zuten zerbitzu britainiarrek. 1972an errepublikanoen kontrako eskalada hastearekin batera atrako, bahiketa eta Hegoaldeko poliziaren kontrako eraso arraro batzuk hasi ziren gertatzen, IRAren bi adarrek ukatuak.

Denborarekin Dublinen Keith eta Kenneth Littlejohn anaiak identifikatu zituzten, atrakoen egile bezala eta asko erregutu ondoren lortu zuten Britainia Handian detenitu zitzatela. Hauek Special Branch-eko buruari deitzea eskatu zuten, baina honek ez zien, antza, kasu handiegirik egin. Ahalegin gehiago egingo zituen beren abokatuak Londresko gobernuaren inguruan, eta azkenean bere bezeroek ezer txarrik egin bazuten zerbitzu britainiarren partaide gisa egin zutelako salatu zuen publikoki. Anaietako batek, gainera, bera kontratatatu zuena John Wyman zela adierazi zuen.

Abendu hartan suertatuko ziren Dublingo Parlamentua lege antiterrorista gogorak onartzera bultzatzeko leherketa haiek; batzuek kalean hamarka herritar akabatu zituzten, eta beste batzuek autobusetako bi txofer.

Baina abenduan bertan detenitu zituzten Wyman eta Crinion ere Dublinen, eta juez britainiarra prest egon zen Littlejohn anaiak Irlandara estraditatzeko, beste biei zigor txiki bat ezarri eta hiru hilabeteren buruan berriro Britainia Handira joaten uztearen truke. Beren nagusiek abandonatuta ikusirik, «zekitena» kontatzeko prest egon ziren. Hala jakin dira ingelesek I.R.A. Ofizialean infiltratzeko erabili zuten hainbat trikimailu, zenbait buru nola garbitu zituzten eta abar.

Hala ere, ihes eginen dute bi anaiak, batek Birminghamera iristea lortuko duelarik. 1974ean, Birmingham-en, hain zuzen errepublikanoak aski indartsu eta oso ongi kontsideratuak ziren auzo batean, bonbak ipintzen dira hainbat pubetan. Irlandesek ukatuko dute horretan zerikusirik izatea, baina oso ongi



etorriko dira Britainia Handian ere legedi antiterrorista jartzeko.

### Nazioarteko kolaborazioa eta ISC

Ezaguna da Europako zerbitzuen artean lotura estuak badi-rela, batik bat britainiar, aleman, amerikar eta Israelgoen artean, baita Hego Afrikarekin ere. Elkar laguntzen hasita, britainiarrak iritsi dira Alemaniako taldeetan bere jendea infiltratzeraino.

Bestalde, egunkari britainiarrek atzerrietan dituzten korrespondentsal ugari MI-6 zerbitzuaren kontakto agenteak dira. Era berean, hizkuntz eskolak, Britainia Handian ingeles ikastaroak antolatzen dituzten asko, bankuak, konpainia ingeles enkurtsalak, eta abar, agenteen disfraz politikak izan ohi dira. Estatu Frantsesean, eta enbaxadaz kanpo, britainiarrek beste hamabost antena ere badituzte, eta errepublikano bat bahitzeraino iritsi dira, alemanen laguntzaz.

Britainiarren eta CIAren elkarlanetik sortzen da kontra-insurjentziaren estrategian azterketa eta presio talde garrantzizko bat, «*Institute for the Study of Conflicts*» (ISC) izenekoa. Gatazka moderno guztietan arakatzeko du ISCK, eta batez ere subertsio arazoetan. Horretarako estrategia sendoak markatu nahi ditu, britainiarrentzako bezala NATO osoarentzako. Ford fundazioetik bezala beste hainbat iturritatik jasotzen dituzte sotsak. Esan behar da bere sortzailea, Brian Crozier, Reuter agentziako kazetari izana dela, eta Francoren biografia bat idatzia duela, batere kontrakoa ez dena, gainera. Gero gabineteko britainiarrean seguritate eta informazio buru izango zen Peter Wilkinsonen laguntzaz osatu zen ISC.

Baina horretan bere lankide nagusi *Robert Moss* izan zuen, kazetaria bera ere, Txile eta Irlandan espezialdua dago, eta «Ulsterreko seguritatea» izeneko bere obrak eragina izan zuen ingelesek «Motorman» operazioa martxan jarri zezaten. Txileko esperientzia marxista hankaz gora bota behar zela aholkatua zuen lehenago.

### Hamalau espertok proposatu zuten ulsterizazioa

Orain euskaldunon artean ere hain ezaguna egin den ISC horrek Europa osoa hartzen du bere azterketan, Irlandaz kanpo Alemania oso gogoko duela. Horri buruz lan asko egin du, eta «Europako seguritatearen dimentsio berriak» obran proposatzen dena oso garrantzizkoa da: orain arte NATOK lurraldeen segurtasuna garrantzatu du, baina ez sistema politikoa, sozial eta ekonomikoak. Eta horietan subertsioak sortzen duen gangrena profitatu dezake. Ondorioz, prentsatik hasi eta irrati, argitaletxe, kazetarien sindikatu eta irakaskuntzaraino harrapatzen dituen neurri saila proposatzen da. Eta terrorismoari dagokionez, beste gauza askoren artean, presoen despolitizazio

eta kriminaltzea urjentziazkotzat jotzen da.

Eusko Jaurlaritzak ekarritako espertoek ISCekin egiten dute lan, beren azterketa ugari haren aldezkarian argitaratuak dardela. Kitsonek ere hor argitaratzen du, eta Irlandari buruzkoek aparte badu beste azterketa bat, «Gatazka iturriak industria britainiarrean», zeinetan langileen fitxaketa sistematikoa eta komunisten kaleratzea proposatzen bait du. Irlandesekin negoziatzearen kontra eta armada erabiltzearen alde hain gartsuki ahalegintzeagatik famatua den Paul Wilkinsonek ere hor argitaratzen ditu bere proposamenak.

1971etik aurrera, eta honek badu interesa euskaldunontzako, ISCK 14 esperto eta irakaslerekin Irlanda aztertze talde bat osatu zuen, eta hortik atera zen manifestu bat, «*Ister Debate*»: nazionalisten ghetto liberatuetan gogor sartzea proposatzen zuten, urte beteren buruan eginen zena. Aipatu behar da hamalauen artean zegoela, eta gogoz parte hartuz, Fine Gael alderdi kontserbadore britainiarzaleko ministro zen, eta den, Garret Fitzgerald. Manifestua Estatu Batuetan banatu zen, politiko irlandar-amerikanoak komentatzeko.

Orain gure artean esaten duten bezala, orduan ere irlandarrei esango zieten kafea hartuz solastatzera dedikatzen zirela hamalau espertoak. 1972ko abuztuaren 31ean «Motorman» operazioa martxan jarri zenean «ingeles hauek erotu egin dira» pentsatuko zuten. Ez zeuden hain eroak.

## POPULAZIO KONTROLA

1972ko abuztuaren 31ean, goizaldeko 4etan, 21.000 soldadu britainiarrek, tanke eta guzti, ordurarte zenbait hiritan nazionalistek gune liberatu moduan kudeatu zituzten ghettoak inbaditu zituzten, Suezeko kanpainatik ingelesek egindako operaziorik inportanteenetako batean. Soldaduz bete ziren Belfast, Derry, Lurgan, Armagh, Newry eta Coalisland, eta ekintza Hego Irlandarekin koordinatua zegoelarik, hauek ere lagundu zuten muga inpermeabilizatzen. «Motorman» operazioa martxan zegoen.

Auzo katolikoan erdian kontrol puntu estrategikoak kokatu ziren; armadaren nahiz R.U.C. poliziaren postu batera hurbiltzean «ramp» edo koska bidez mantxo erazten zaie abiadura autoei; koartelak blindatzen dira. Belfasteko erdialdea, merkatalgo zentroa, barreraz eta pasabide kontrolatuz inguratu dira. Horietatik pasatzen direnak katxeatzen dira, boltsetan miatuz. Eta auzo katolikoan sakabanaketa areagotzen da horien eta lealisten artean harresiak («Peace line» edo bake lerroak deituak) eraikitzen direla.

Muga iragaiten duten bide gehienak, errez kontrolatu daitezkeen errepide nagusiak salbu, itxi egiten dira, eta bide horiek minatzeraino iristen dira. Gauez izorratzen zituzten, ordea, eta patruiletara bihurtu behar izan zuten britainiarrek, hori bai, radar eta bijilantzia sistemak hobetuz.

### Populazioari «normalizazio» gosea eragin

Estrategia oso garbi bat hartua du Armadak: aldizka eta nahasian erabili behar dira ghettoak soldaduz gainezka bildurtu erazi eta beste batzuetan auzo, kale, etxe, familia edo pertsona bakar bat selektiboki zigortzea. Alternantzia horrek egonezina sortzen du, operazio guztietan militarrek kontrol moeta guztien jabe geratzen direla.

Metodo ezberdinak erabiltzen dira. Etxez-etxekako galdekinunak, armak edo militanteak harrapatzeaz gain sistematikoki egiten badira biztanlegoa larritzeko eta informazioa egunera jartzeko balio dutenak. «Screening»: batzutan ordu batzuetan baina sarritan zazpi egunetan interrogatzeko jendea detentzea. «Toque de queda» edo «couvre-feu» deritzaiona ezartzen da sarritan auzo batean. Interesatzen diren herritarrek egunero daramaten bizi moduz biltzen den informazio guztia ordenagailuz erabilgarri egiteko «targetting» eta «zeroing-in» teknikak erabiltzen dira. 1976tik aurrera, auzirik gabeko espetxeratzea kendu zenetik, auzia baino lehen bi urtetaraino edukitzen da deteniturik jendea.

Helburua? Populazioak «normalizazioa» iristeko gogoia izan dezala, hau da 1969 baino lehenagoko egoerara, baina orduan subertsioa hedatzeko izan ziren arrazoiak berriro sortu gabe. Aldi berean ekonomikoki hondamendian murgildua dagoen herrialdea aurrera ateratzeko promesetan, besteren artean Belfasteko hainbat etxe eta kale hondatu berreraikitzen hasten direnean, planifikazio militar baten arauera eginen dute lana.

### Auzo nazionalisten koesioa zartzeko

Frogatua dago 1969 eta 1973 artean 60.000 pertsona bota zituztela beren etxeetatik Ipar Irlandan, gerra mundialaz geroztik European suertatu den populazio mugimendurik handienean. Horietako gehienak nazionalistak ziren, 1969ko «pogrom» edo sakeoan egin zen erreketan ihesi joandakoak. Ho-

**Lealisten erasoan ondoren, bolada batean IRAk kontrolatzen zituen argi eta garbi auzo katolikoak.**





«Erakunde modernoak, herria bera bi estatu artifizialetan zatitzea bera, Londresek sortu erazi duen gerra zibil batetik datoz. Baina zehaztasun horrek ez dio herri horri bere laboratoriorio izakera kentzen, ezta beru biztanleei akuri izateko zorte tristea barkatzen ere. Ingelesez mintzo direlako, zuriak direlako, Europa barruko etsai kontsideratzeko hainako neurrian European integratuak daudelako, era berean isilpean hiltzen uzteko bezain marrinal direlako, guzti horregatik dira batean urrutiko etsai terrorista, atzerritarra eta era berean geure errainua»

Roger Faligot



«Irlanda da gobernu ingelesak armada handi egonkor bat mantentzeko duen aitzakia bakarra, armada hori, behar izanez gero, eta jadanik usu ikusia dugu, langile ingelesen gainera jaurti ahal izateko, beren ikasketa militarrik Irlandan eginak dituztelarik. Antzinako Erroma hark neurri ikaragarri batzuetan erakutsi ziguna errepikatezn da gure egunotan Ingalaterran. Beste herri bat zanpatzen duen herria bere kateak ari da forjatzen».

*Karl Marx.*

## Larrun, 1985eko abendua

riei etxe berriak eraikitzearen aitzakiatan, herritik kanpo eraman zituzten, *auzo estrategikoak* eraikiz, Malaysian eta Vietnamen esperimentatutako herri estrategikoen antzera.

Bi proiektu izanen dira horren ardatz. Batetik, «Ring Road» izeneko periferiko edo «bariantea», auzo obreroak hautsiko zituena. Armadak 1943tik prest zeukan proiektu horrekin lortu nahi zuten britainiarrek batetik ghettoak hautsi eta zentrotik garbi bereiztea, baina baita ere 1972tik nazionalistek eta kooperatiba gisa kudeatzen duten taxis herrikoien sarea ahultzea, zirkulazio azkarreko kaleak potentziatuz.

**Kaleko kontrolak, azken finean, britainiarren informazio sistema osoaren azaleko agerpen bat besterik ez dira.**

Bigarrenik, hiritik kanpo auzo misto bat eratu nahi zen, baina politiko lealistak bai auzo nahasi bat eraikitzearen eta bai osoki katolikoa (beraz, iratarren kabi) izango zen baten kontra agertu ziren.

Helburu inportante bat da nazionalistei berek kontrolatzen duten edozein ekintza eskuetatik kentzea, eta hola kiroletan bezala joko, dantza eta denbora librean saiatzen ziren erakundeak hondoratzeko alternatibak sortu zituzten britainiarrek, beti ere militarren edo poliziaren zaindaritzapean, beti ere medio hobeeekin.

## Ordenagailua, beharrezko arma indartsua

Ordenagailuak zabaldu zirenetik zetorren Kitson bere erabilerarekin, eta 1977an ordenagailu zentral batean koordinatu zen Ipar Irlandako populazioari buruzko informazio guztia, baina baita Hegoaldeko eta Britainia Handira emigratuei bu-



ruzkoa ere. Data basean sartzen dira izenak, deskribapenak, lantokiak, autoen matrikulak, informe judiziala, eta 1969tik aurrerako politika ekintzak, baina baita antzinakoak ere. Gu-  
txiegi? Beharrezkoak. Horretarako 1974etik aurrera 72.000 etxe arakatu ziren, Aseguro Sozialeko erreziboak berifikatu, zergen artxiboak aztertu, autoen jabego artxiboak eta karnet dutenenak ikertu... Mila gauza.

Azkenean, segundu gutxiren bueltan ordenagailuak senide-  
ren bat «terrorista» duzun ere salatzen du, eta lehen terrorista ezagunak edo susmagarriak bilatzen baziren, orain «litezke-  
nak» ere kontutan hartzen dira. Batailoi bakoitzak ordenagai-  
luaren terminal bat badu, eta bere informazioak zuzenean bi-  
daltzen dizkio, IRAk interferitu lezakeen telexa erabili beharrik gabe. Eta konpainia bakoitzaren koarteleko unitateak informa-  
zio operazionala jasotzen du zentraletik.

Zentralak dituen artxiboak lau sailetan daude banatuak:

- 1) Xehetasun pertsonal guztiak: adina, zuzenbidea, deskriba-  
pena, berezitasunak, enplegua, ohiturak, usadiozko lekuak,  
kontrolaldi guztien zerrenda, familiartekoak, autoa eta lagu-  
nak.
- 2) Aljerian frogatu zenari jarraiki, kaleka sailkatzen da etxe ba-  
koitzean bizi den jende guztia. Soldaduek etengabe gaurkotzen  
dute informazioa, eta kodigoz nabarmentzen da etxe bakoitza-  
ren (han gehienak etxe txikiak dira) berezitasunen bat: atea,  
edergarriren bat, gelaren bateko papera...
- 3) Autoen datuak, eta jabearen erlijioa. Beste erlijioa auzoan  
badago, susmagarria izan daiteke.
- 4) Auto batek pasatzen dituen kontrolen zehaztasunak eta au-  
toaren zenbaki mineralogikoa. Segimendua erabatekoa da.

Horretaz gain beste ordenagailu bat bazen, Estatu Batuetako  
marinak eskainia, Belfastko unibertsitatean. Ipar Irlandako  
ghettoei buruzko informazio soziologiko eta etnologikoak, ize-  
nez bederen, erabiltzen zituen, eta IRAk lehertu zuen, bere  
zerbitzuen erdia baino gehiago gobernuarentzakoak zirela  
adieraziz.

### Sofistikazio teknikoarekin batera soziologoak

Britainiarrek sarritan erabili duten entzute sistema berezi bat  
etxeetan mikroak jartzea izan da. Senideren bat detenitzeko  
etorri direla profitatuz, etxeko gainerantzekoak gela batean  
sartu erazten dira, edozein aitzakiarekin, eta bitartean solda-  
duek mikroak ipintzen dituzte gainerantzeko geletan. Esan be-  
harrik ez dago, euskaldunon artean ere hori izugarri hedatua  
dago eta, ehunka telefono daudela Irlandan hemen bezala  
interbenituak. Zaila da telefonoetatik eskuratzen den hainbeste  
materialez ongi baliatu ahal izatea, baina horrek ere susto ga-  
lantak emango zizkien ordura arte aski lasai mugitzen ziren

IRAtarrei, beren gerrarako bestelako metodoak erabiltzera  
bultzatuz.

Alderantziz, IRAren bi adarrak baliatu dira urte luzeetan Ar-  
mada britainiarri telexa bezala telefonoak kontrolatzeaz.  
Kargu handiko agintariek badute «lainotzea» deitzen den sis-  
tema bat: sistema horren arauera telefonoko seinale bat ezin  
ulertu da linea guztian, bukaeran baino. Errepublikanoek hori  
kontrolatzeko sistema ere antolatua zuten.

Baina kontraintsurrekzioak baditu beste sistemak sofistika-  
zio tekniko horiek bezain inportanteak. Horrela, soziologo eta  
langile sozialek goitik behera pasa zituzten ghettoak, hango  
egoera sozial, politiko, erlijioso, kultural eta abar ezagutuz. As-  
kotan esplikazio oso psikologistak emango dizkiote Ipar Irlan-  
dako gerrari, baina dena dela ere material pila bat eskuratzen  
diote profesional horiek Armadari.

Estatu Batuetako Pentagonoak gogotik subentzionatu zituen  
zenbait unibertsitatek Indotxinan egindako ikerketak, hango  
gizarteak soziologia aldetik bezala antropologia aldetik azter-  
tzeko. Ipar Irlandako egoera arakatzera ere unibertsitariak  
azaldu ziren 1972ko eskalada hasi eta berehala. Beren emait-  
zik interesgarriena agian Andersonstown auzoan gertatua izan  
daiteke.

### Andersonstown, adibide argigarri bat

Eliza protestanteen zein Vaticanoaren garantiaz sartu zen  
Ipar Irlandan aztertzaile talde bat, buru *John Burton* izeneko  
bat zuena, eta bere gidaritzapean egindako azterketek ekarriko  
zuten «Ulster Independiente» baten proposamena. Ingele-  
sentsat kontrolatzeko oso zaila zen eta IRAko batailoirik pro-  
gresistenetako bat zuen Andersonstown auzoan zentratu zuten  
beren lana.

RUC polizia britainiarrarengana errepublikanoek zuten ja-  
rrera erabat kontrakoa aztertuta, ikertzaile hauek proposatzen  
zuten ghetto katolikoak IRAren inguruko zaindarien bijilatzea.  
Asmo hau britainiarrek ontzat hartuko zuten, eta 1975eko tre-  
goan horretan saiatu ziren: errepublikanoek beren zonaldeak  
kontrolatu zitazela, hori britainiarrek beren planetan integra-  
tuz. Faligoten ustez, oso berandu konturatu ziren horretaz  
errepublikanoetako buru asko.

Bitartean, eta ikerketaren aitzakiatan, unibertsitari horiek  
auzoko errepublikano moderatuen eta gero eta gehiago kon-  
trolatzen zituzten komunikabideen babesean, auzotik polizia  
sekula lortzera iritsi ez zen informazioa atera zuten, biztanleen  
izen-adinetatik hasi eta pentsakera politikoraino. Eta azkenean,  
marxista kutsuko hizkeraz hasitako lanak, Armadarentzako  
dossier batean burutzen dira.

Horrela lortu zen «terrorista eredia» egitea: sospetxoso  
arriskugarrienak ziren langabezia zeuden eta Estatuaren

subentzioetatik ahalik eta gehiena gozaten zuten gazteak. Estatuak, bestalde, maila guztietako animazio motak jarri behar zituen martxan, egitura errepublikano autojestionatuak hankaz gora boteaz. Erresistentziak kontrolatzen zituen kooperatibak izorratzeko beste batzuk, «integratuak», jarri behar ziren martxan. Eta polizia ongi ibiltzen ez zen zonaldetan, errepublikanoei ametitu behar zitzairen bijilantzia, biolentzia maila razional batzuetara apaltzeko.

Etsaiari aurpegi egin ordez bere egituretan sartu eta kontrolatzeko taktika hau, errepresiorik gogorrenarekin konbinatuko da 1975eko tregoa burutzen denetik. Eta besteren artean, jipoi izugarri bat jasan zuen Andersonstowneko batailoiak.

### Poliziarri informazioa salatzea normal bihurtu

1972ko abuztuan «Motorman» operazioa martxan jarri zenetik, komunikabide guztietan bezala kale eta autobusetan zabaldu zen telefono konfidentziala, anonimoki edozein informazio poliziarri nahiz ejertzitoari emateko. «*Confidential Telephone: Belfast 652. 155*». Sekulako jende pilak deitzen zuela esaten zen, noski.

Baina numeroa jakinerazteaz gain, horretara deitzea normal egiteko kontsentsu bat sortu beharra zegoen. Ez zen oso erreza, Ipar Irlandako gizartean. RUC polizia bera ia erabat protestante auzoetatik aterea da, eta 1969ko gertakizunen ondoren ghetto katolikoetan beren autodefentsa sistemak zeuzkaten prestatuak. Salataria, txibatua, mespretxatzen da, eta literatura irlandarrak makina bat adibide badu horretarik.

Egoera hori gairatzeko ahalegin guztiak egin dituzte beti britainiarrek, telebista programa bereziak, etabar. Baina saiorik trebeena «Bakearen Aldeko Emakumeen Mugimendua» rekin burutu zuten, bortxa guztiak salatzen hasita azkenean IRAri buruzko edozein informazio agintariei ematera bultzatzea nahi bait zuten jendea. Baina aurrerago zehazkiago mintzatuko gara Ipar Irlandan hain interes handiz bultzatu zen mugimendu horretaz.

### Auzoak zein mendiak zaintzeko tresna optikoak

Bijilantzia optikoa estraina mugetan erabili zen, baina gero laster Armadaren koartel eta talaietan ipini ziren. Bi tipotakoak erabiltzen dira. Batzuk eskuz mugitzen dira, eta «zoom» eta guzti dutela, nahi dena urrundik nahiz gertutik filmatu dezakete. Besteak estatikoak dira, eta tripode baten gainetik kale osoa behatzen dute. Helikopteroak ere kamaraz ekipatuak daude; irudia kasernara bidaltzen dute, eta han manifestaldi baten erdian aurpegi bat hartzera iritsi liteke.

Infrarrojo sistemaz hornitutako kamarak ere erruz erabiltzen dira Irlandan. Armadak aitortua da halako tramankuluekin ikertu zela Long Kesh-eko espetze berezia, ea presoek tunelik

eginik ba ote zuten ziurtatzeko. Mugetan ere erabiltzen dira, minak edo arma gordelekuak aurkitzeko. Oso inportantea da teknologia mota hori, Irlandan bezala gerrilla hein handi batean hirietatik kanpo herri eta mendietan egiten denean.

Hori dela eta, britainiarrek asko erabili dituzte Vietnamgo armen jenerazioko laguntzaileak. Famatuak dira: «Twiggy» izeneko irudi intentsifikagailua, gauzez bi kilometrotako inguru ongi zaintzea posible egiten duena; «IRIS» sistema, izpi infrarrojo bat duena, ezerk eteten duenean alarma martxan jartzen delarik; «ZB-298» radarrak hamar kilometrotan norbait mugitzen bada kontrolatzen du (behi ugarien heriotza eta Hegoaldeko Armadaren eta britainiarren arteko borroka asko erakarri omen du). Azken berrikuntza «GS-20» edo «Mk-1» radarra da: edozein projektilek etorrera errejistratuz, tiroa nondik ateratzen den zehazten du berehala, tiratzailearen posizioa salatuz.

### Kautxozko balak eta plastikozkoak

Baina errepresioan erabiltzen diren teknikak erabaki politikoaren ondorio dira, eta interesantea da kaleetako istiluak bake-ratzeko britainiarrek aukeratu dituztenak ikustea. Aipamen berezia behar dute kautxozko balak eta plastikozkoak.

Kautxozko balak 1970ean sartu ziren Ipar Irlandako bizitzan, Ted Heath buru zutela kontserbadoreek agintea hartu eta berehala, ghetto katolikoaren kontrako ofentsibaren erdian. Kautxo mazizozko zilindro bat da, 15 zentimetrotakoa, 3,5 zentimetrotako diametroa, eta 150 gramotakoa. Berez, sekula ez lirateke erabili behar 20 metro baino gertuagotik eta tiro tentsoan. Baina errealitate, hori ez betetzeaz gain soldadu britainiarrek beren amorruan iltzeak erasten zizkieten, edo kautxoaren ordez tamaina bereko pilaz kargatzen.

Ez dira gutxi izan kautxozko balaz hil direnak. Haurrak gehienbat, baina baita helduak ere, eta beste asko geratu dira itsu. 1975ean «proboek» tregoa bat onartuko zuten, eta kautxozko balak Estatu Espainolean modan jartzen diren garai berean, 1976tik plastikozkoak erabiliko dira Ipar Irlandan. «Emakumeen Bakearen aldeko Mugimenduaren» garaia dira, eta britainiarrek ulsterizaioa lortu nahi dute, politikoki erresistentziaren eta presoaren kriminalizazioa eta militarki errepresioaren selektibotasuna, esan nahi duelarik.

Kautxozkoaren antzekoa da plastikozko bala, arroxak kolorekoa, arinxeagoa, baina askoz abiadura handiagoa daramana. Erabilera: soldadu batek manifestante bati tiratzen dio, eta jotzen duenean orduan aprobetxatzen dute beste soldaduek harapatzeko. Ume ugari hil dute bala hauekin, eta horietako batzuk gainera istilurik ez zegoen momentuetan, mendeku gisa edo «praktikatzen».

## Kimika nazionalista irlandarren kontra

Gezurra irudi balezake ere, kimika ere erabili da errepublikanoen kontra. 1976an «Evening Post» egunkariak argitzen zuenez, 200 hektarea sastraka eta garo erre zuten britainiarrek. Horretarako «*agente urdina*» erabili zuten, yankiek Vietnamen askotan frogatua, eta dioxina toxikoa daramana. Zuhaitz eta sastrakak ostorik gabe utzi eta ihartu erazteko erabiltzen da, eta 1976ko abuztuan behin baino gehiagotan bota zuten helikopteroetatik mugu aldean, ia beti Hego Armagh eskualdean.

Ez dirudi horietarik gure artean erabili denik, mugako mugimendua ez izaki hemen han bezain nabarmena, baina Euskal Herrian bezala Europako leku askotan poliziak erabiltzen dituen aurrerapenen aintzindaritzan Irlandak eraman du. Gas po-teetan, adibidez, teknologia han espermentatu da; gas negar-eragileak ahul samarrak zirela kontsideratuz, C.S. gasa, vietnamgo gerran perfektionatua, erruz astintzen dute. Auzo txiki eta itxietan, bizimodua jasanezina egiten zitzairen horrela batez ere ahulenei: zahar, ume, emakume haurdun, gaiso... bizimodua populazioari aski zail egin, berriro trankilitatera bihurtzea nahi dezan.

Eskutu transparenteak, auto blindatu eta azkarrak, bonbak desmontatzeko blindatu telegidatuak... Nondik inportatua aurkitu zuten hemengoek ere.

Belfasteko erdigunea erabat inguratzeaz aparte, autobide berria ere erizpide estrategikoz eraiki da.



# ESZEPZIO LEGEDIAK ETA PRESO POLITIKOAK

Hasteko, lege eta jukeen papera kontra-intsurjentziaren es-  
trategiek nola ulertzen duten ikustea interesgarria da. Kitsonen hitzetan: «*Legea erabili behar da gobernuaren artsenalean arma bat gehiago balitz bezala, eta kasu horretan bere zeregina garbia da: publikoarentzako gogaikarri diren herritarrek gaintik kentzeko propaganda-estalki bat izan behar du. Efikaziaz lan egiteko, zerbitzu judizialek ahalik eta diskretoenik lagundu behar dute gerra ahaleginetan*».

Eskema horretan kokatu behar da, beraz, sare osoa: detenit-  
zeko agente bereziak, interrogatorioak baldintza berezietan, auzia tribunal berezietan, legea egiten dutenen ideologia bere-  
ko juezekin... eta espetxe bereziak.


Guzti horri lotua doa tortura. 1971ean «akuri» batzuen gain  
esperimentatu ziren tortura modu berriak, azkar lortu beharre-  
ko informazio taktikoak eskuratzeko: arma gordelekuak, bu-  
ruen izenak, borrokakideenak... 1979tik aurrera, informazio  
taktikoak lortzeko ordenagailuak askoz garrantzia handiagoa  
hartu zuen Irlandan, baina 1976tik aurrera beste helburu poli-  
tiko-militar berezi bat zuen torturak: kondena kopuru batzue-  
tara iristeko aitormenak lortzea.

## Legedi Antiterrorista demokraziarik zaharrenean

Irlandako legedi bereziak eraman duen bidea ezagutzeko  
da, batez ere oraindik gure artean Euskal Herrian gertatzen di-  
renak Erresuma Batua bezalako usadio demokratiko luzedun  
erresuma batean sekula ez litzatekeela gertatuko uste dute-  
nentzako. Irlanda bitan zatitzearekin batera, 1922an, onartzen  
da «*Special Power Act*». Horren arauera polizia zein armada  
britainiarrek egin dezakete: prozesurik gabe espetxeratu,  
agindu judizialik gabe edozein ordutan edozein etxe miatu,  
mitinak galerazi, kastigu bezala zigorra erabili, edozein pertso-  
na lekuko izatera eta deklaratzera behartu, preso bati familia-  
rren nahiz abokatuaren bixita galerazi, preso baten heriotza  
ikertzea galerazi, aldizkariak bezala filme edo diskak galerazi,  
bankuetako kontuak kontrolatu, edozein sospetxoso deteni-  
tu...

Lege hori zaharra bazen, 1973an «*Emergency Provisions  
Act*» delakoak hartzen du bere lekua, aldaketa gutxi ezarriz.  
RUCek nahi duena detenitu dezake, juezaren agindu beharrik  
gabe. Deteniturik edozein pertsona zazpi egunez eduki daiteke,





**Long Kesh-eko «H» blokeak  
historiara demokrazia  
britainiarraren basakerien etsenplu gisa  
pasako dira, baina  
baita Mendebaldeko  
espetxe berrien eredu bezala ere.**

eta bitarte horretan poliziak galerazi dezake bai abokatuek edo bai lagun edo gurasoek ikustea, medikua galeraztea bezala. Armadak lau orduz detenitu dezake edonor, baina normalki gero poliziari pasatzen dio, beraz zazpi egun berriro ere. Edonor eta edozein auto geldierazi daiteke kalean, ondoren miatzeko. Eta auzirik gabe eduki daiteke edonor espetxean.

Azken puntu honen erreztasunengatik, 1.800 katoliko egon ziren auzirik gabe gartzelan 1971etik 1975era bitartean. Gehienek bi eta hiruna urte egin zuten zuloan, lealistetatik berriz 200 bakarrik pasa zirela, eta bakar bat ere ez urte bete baino gehiagoz, nahiz eta asko asesinaketetan inplikatuak egon. Urte horietan, 5.000 pertsona egon ziren zazpi egunez deteniturik.

1975etik, eta Probisionalen tregoarean ondorioz, auzirik gabeko espetxeratzeak eten ziren. Baina juraduak kendu ziren aldi berean, eta IRAko presoak epaitu dituzten juezen zerrenda eta historiaiei britainiarzaletasuna darie alde guztietatik. Batzuk militarrek izanak dira, asko diputatu unionista izanak, gobernuako kontseilari ere bai...

### **Preso politiko estatutoa lortzeko borroka luzea**

Britainiarrek auzirik gabeko espetxeratzea martxan jarri zutenean, 1972an, kategoria espezial bat jarri behar izan zuen, IRAko prisioneroek egin zuten gose greba baten ondorioz. Eta 1976an, internamendu hori kentzearekin batera kendu zitzairen preso politiko estatutoa ere. 1976ko otsailaren 29tik aurrera detenitutako edozein preso ez da jadanik politiko. handik aurrera gartzelako uniformeak eraman behar dute, bakoitzak bere zelda du, eta 40 ordu egin beharko dute lan astean.

NATOk eta ISC erakundearen dossier batek kontseilatzen zuten estatuto politikoa kentzea Mendebal Europa osoan. Estradioak posibilitatzeaz gain, horrek erretzen zuen errepublikanoak Ipar zein Hego Irlandan berdin pertsegitzea.

Hemeretzi urteko gazte errepublikano batek ekin zion protestari. Kieran Nugent zen politikotasuna ukatzen zitzaion lehen presoak, eta uniformeak jartzea baino larrubixirik egotea nahiago izan zuen. Koltxoia bezala manta ere kentzen zioten egu-

nez, ez zitzaion liburu bakar bat ere ametitzen, ezin zen gainerako presoekin elkartu, ez zuen korreorik. Laster izango zituen laguntzaileak ekintza horretan, eta errepublikanoek, IRAko zein sortu berria zen IRSPkoek behin eta berriro adierazi zuten mugimendu errepublikanoa 1798an sortua delarik sekula ez duela onartu presoentzako politikoa ez den estatutorik.

Legedi internazioalean bezala Gurutze Gorriaren araudietan bada hainbat puntu nazio askapen mugimenduko partaide prisioneroen eskubideak zaintzen dituena. Eskubide horiek gehienbat mugimendu baten onarpen internazionalaren esku geratzen dira. Irlandako errepublikanoek zenbait naziotan ia onarpen diplomatikoa dutela esan beharra dago, eta errepublikanoek berek beti argi eta garbi uzten dute gauza bat direla nazio askapen mugimenduak, IRA edo ETA bezalakoak, eta oso beste gauza bat RAF alemanak edo Italiako Brigada Gorriak. Halako zerbait aitortzen zuten frantsesek ere Aix-en-Provence-ko auzian James McCann irlandesaren estradizioa bezala Martin Apaolazaren eta Mikel Goikoetxea «Txapela»ren estradizioak ukatu zirenean... duela bi urte Mitterrandek Gonzalez hiru estradizio erregalatu zizkion arte.

### Garbitasun greba

Horiek hola, britainiarrek ez zuten amore ematen eta 1978ko apirilean Long Kesh-eko espetxean zeuden presoek higie greba bati ekin zioten. Obramentuak bezala gernuak gelan bertan botatzen zituzten, edo leihotik behera. Gelak, bezaz, kakaz zikin eta usaintsu zeuden, mueblerik gabe, presoak berak ere bizarrik moztu gabe eta krakaz estalita; jantzirik ez zuten, eta igandean mezetara joateko serbiletan urdin bat emaitzaie, baina kapilara sartu aurretik gorputza osorik erakutsi behar zuten; ez libururik, ez prentsarik, ez irratarik, ez gimnasiarik, gauetan lorik egiten ez zitzaie uzten, jipoiu ere egiten zituzten...

Urte horretako uztailan bisitatu zituen «H» blokeetako presoak Irlandako apezpiku nagusiak. Ordurako 3.000 ziren. *«Kiratsa eta zikinkeria zelda horietako batzuetan, janari hondar ustelduekin, hormak zimaurrez zikinduak, ia jasanezinak ziren. Horietako bitan ez nintzen hitzik esateko gauza izan, gonbitoka hasteko beldurrez. (...) Eta hala ere harritu egin ninduen presoek duten moral handiak. Beren hitzetan, erabakia daukate protesta azkeneraino eramatea, eta badirudi nahiago dutela hiltzea preso komun direla ametitzea baino».*

### Legedi Antiterrorista Britainia Handira zabaltzen da

1974eko azaroaren 21ean bi bomba lehertu ziren Birmingham-eko bi pub-etan. 21 hildako, asko britainiarrak, eta IRAk denbora behar izan zuen bere partaidetza ukatzeko. Denborak

argituko zuen bi pubetan askotan sozialistak biltzen zirela, eta egun gutxiaren buruan detenituko zen zerbitzu sekretuekin lotutako Kenneth Littljohn: Dublinen lege antiterrorista onartu aurretik jokaldi bera egin bait zuen. Irlandesek Birmingham-en jasan zituzten eraso guztiez gain, lege antiterrorista oztoporik gabe pasa zen... azaroaren 28an.

Hasteko, IRA legez kanpo geratzen zen Britainia Handian ere (ordurarte «Ulster»en bakarrik zegoen debekatua). Baina arau horrek eraskin bat badu, konplizitatea zigortzen duena. Irlandes den edozeri erasotzeko aitzakia. Presoen aldeko dirubiltak bezala Sinn Fein-en ekintza politikoak asko urritu ziren.

Komunikabide britainiarretan, bestalde, eta konplizitate horretan ez erortzearen, errepublikanoenganako sinpatia pittin bat agertzen zuten saioak ez ematea «kontseilatzen» da.

Legearen bigarren zatian, ordea, barne arazoetako ministriari edozein irlandar Britainia Handitik Irlandara nahiz alde-rantziz deportatzeko ahalmena ematen zaio. Horrela, IRAkoak direla uste direnak pertsegitzen dira, eta frogarik gabeko sospetxosoak direnean espulstatu. Horrekin errepublikanoen buru politikoak espulstazteaz gain, txantaiaren bidez populazio irlandarrarengandik informazio ugari lortzea posible da.

### Populazio errepublikanoa bere presoen alde mugitzen da, manipulazioen gainetik.



Hirugarren zatian, detentzio epeak zabaltzen dira eta edozein errepublikano susmagarri 7 eta 12 egun artean eduki daiteke detenturik. Honi erantsirik gorago aipatua, delito bati buruzko informazioa poliziarik ez ematea delito bihurtzen dela, kalkula daiteke zein errez daukaten britainiarrek bai irlandesak jipoitzeko eta bai kazetari «saltseroak» espulstatzeko. Guzti hau kontutan eduki behar da «Emakumeen Bakearen Aldeko Mugimendua» k aurrean aurkitu duen oposizio kaxkarra ulertzeko.

### Torturaren baliabide ugariak

Europar torturarik ez dela posible uste dutenentzako, argigarria litzateke jakitea betidanik erabili dela hori Irlandan. Areago, informazio iturri bezala haina teknika berrien esperimentuetarako erabili da.

Lord Carandon britainiar esperimentatuak ongi esplikatzeko zuen militarren jarrera: «*Testuinguru intsurrekzional batean, informazio iturriak bi mailatakoak izan daitezke nagusiki. Batetik informatzaileak, eta oso urriak direnak populazioaren gehiengoa rebeldeen alde dagoenean, eta horien informazioak ez dira gainera beti garantizatuak. Harrapatutako rebeldeak dira beste iturria. Gutxitan animatzen dira hitz egitera, ez badira torturatzen edo tratu txarretara makurtzen, eta orduan ere luzatzen dituzten informazioak nahita gezurrezkoa izan daitezke*».

Populazioak beldurtzea ere bilatzen du torturaren erabilera jeneralizatuak. Eta baita esperimentu gisa ere usatzen da. Horrela, Irlandan asko hobetu da «zentzumenen ezabatzea» edo «privación sensorial» deitzen den teknika. Metodoz tortura mota ezberdinak erabiliz (hormaren kontra zutik, kaputxa, soinua, lorik egiten ez uztea, gosea...) pentsamendu eta sentimenduen katea eteten da, aluzinazioak sortuz. NATOren programa militarren barruan egin ziren esperimentu horiek, eta gero Alemaniako espetxeetako zelda espezialak egiterakoan balio handikoak suertatuko ziren.

Alboko gelan oihu grabatuak entzuneraztea, drogak... mila teknika erabili dira, ohizko astoagoez gain. Baina ordenagailuaren erabilera zuzenak torturaren garrantzia ahuldu zuen. Eta tortura geroztik bi helbururekin erabili da Ipar Irlandan nagusiki: batetik, populazioa beldurtzea eta horretarako auzoak inguratu eta detentzio masiboak egiten dira. Hamairu urtetako neskatxa bat detentitu eta kolpatzeraino iritsi dira britainiarrak, inongo presio internazionalik ez denean polizia noraino iritsi daitekeenaren lekuko.

Bigarrenik, auzitegi espezialetan kondena kopuru egoki bat lortzeko aitormenak ateratzea. Belfasteko Unibertsitateak burututako ikerketa batek argitzen zuen auzitegi espezialetan sumario guztien 94ean kondenara iristen dela, horietatik 90 interrogatorioetan poliziak detentuari ateratako aitormenaren oinarri bakarrekin.

## BAKEAREN ALDEKO EMAKUMEEN MUGIMENDUA

1975ean tregoa egon zen IRA Probisionala, eta Harold Wilsonen gobernu laboristarekin negoziatzen zen. Borroka armaturik gabe, gatazka bukatzeko posibilitateez hainbat eztabaida izan zen. Urte beteren buruan garbi geratu zen gobernuaren ez zegoela benetako negoziaketa baterako prest eta armada gogor ari zen ghettoei erasoka.

Abuztuan komunikabide guztiak Bakearen aldeko Mugimenduaz hasiko ziren mintzatzen, eta borroka armatuaren kontra udazkenean hedatu ziren manifestaldiez. Tregoa garai-ko eztabaidez ez zuten komunikabideek deus esan, eta Hego Irlandan 1976an Sinn Fein debekatu zela ere erdi isilpean pasa zen.


Roger Faligotek mugimenduak hasiera batean halako oihartzuna izatearen zenbait arrazoin arakatu ditu. Batetik, urtebete «bakean» pasa ondoren populazio katolikoaren zati batek ez zuen lasaitasunetik berriro gerrara sartu nahi. Eta horrekin batera, sindikatu progresistek eta Sinn Fein Ofizialak beren babes osoa eman zioten mugimenduari.

Gero ikusiko zen ghetto nazionalistetako emakume gehienak ez zirela mugimenduaren aldekoak, eta mugimenduaren «bakezaletasuna» ere aski berezia zela: internamendu kanpoak, tortura, soldadu ingeles eta talde paramilitarrak, ez ziren biolentzia kontsideratzen. Eta inportanteena zena, mugimenduak sortutako kearekin ulsterizazio prozesoa ezkututzen zen, erresistentziaren kriminalizazioa, estatuto politikoa presoei kentzea, torturaren sistematizazioa, S.A.S.en hedatzea, plastikozko balen erabiltze masiboa...

Mugimenduari munduan zehar babesa eman ziotenek denbora asko behar izan zuten konturatzen. Kontra-intsurjentzia britainiarrak laguntzaile asko zituen: enpresa irlandar eta multinazionalak, gobernu europarrak eta amerikanoak, erresistentzia lehertzeko interesa zuten lealista protestanteak eta IRA Ofizialaren oinordekoak. Denbora zen faktore nagusia.

### Eliza kristauak «erlijio gerra»ren konponketa bultzatzen

Vietnamen bezala Aljerian holako mugimenduak lehen ere frogatuak ziren. Britainiarrak ere holako zerbaiten bila zebiltzan, eta 1972etik bi talde baziren: «*Women Together*». (Ema-



**Denbora asko ez zuen iraun «Bakearen Aldeko Emakumeen Mugimendua»ren gezurra agertu arte, baina maila internazionalen britainiarren erasoak eta estrategia denboraldi batez ezkutatzeko balio izan zuen.**

kumeok Elkarrekin) Belfasten eta «*Women's Peace Committee*» Derryn. Bigarren hau IRA Ofizialak soldadu gazte bat hiltzearen erreazioz sortu zen; soldadu hori permisoz zegoen eta berriro itzultzeko asmorik ez zuela adierazia zuen lagunartean. Probisonalen buru kontsideratu izan den Sean McStiofain-ek probokazio bat izan zela idatzia du.

Baina Bakearen Aldeko Emakumeen Mugimenduaren sorreraren aitzakia istripu bat izan zen. IRAko militante batek, tiroketa batean, gidatzen zuen autoaz hiru haur hil zituen; britainiarrek hila zuten, eta autoak kontrol gabe jo zituen. Baina bitarte horretan errepublikanoak mafioso moduan agertzen ziren, armak entregatzeko eskatzen zitzairen, eta bitartean Sinn Fein Ofiziala potentziazten zen, jadanik elektoralista bihurtua eta Irlandaren banaketa onartzen zuena. Zerbait gogora erazten digu...

Tregoa bitartean, bestalde, azterketa zentroak, bakearen aldeko bilkurak, eta abar ugaritu ziren edonon, Irlandan bezala atzerrietan. Eliza kristauak eta karitate taldeek bazuten horretan zerikusirik. «*Witness for peace*», «*Corrymeela*», «*Pax Christi*», «*Fellowship fo Reconciliation*», «*Action for Peace*», «*Good Neighbours*», «*Peace Committee*», «*Dublin Friends*», eta abar.

Guztiek eskema berean ulertzen dute gatazka: Ipar Irlanda barruko borroka bat da, komunitateen artekoa, eta marko horretan konpondu beharrekoa. Inork ez du ulertzen askapen gerra modura, okupazio indar britainiarrekin eta kolono zaharren ondorengo diren lealisten papera, historiaren biktima, baina nazionalismo irlandesaren kontrako terrorearen laguntzaile.

«Elkartasunaren mendia» nahi du esan «*Corrymeela*» izenak eta 1965ean fundatu zelarik 1976an Ulster independien-

## **Larrun, 1985eko abendua**

tearen posibilitatea ikusten zuen, orain Zinbabwe eta orduan Rhodesia zena Erresuma Batuarekin loturik zegoen modura. Hego Irlandan ere bere filialak sortuko ditu, eta denen artean Bakearen Aldeko Emakumeen Mugimenduari bidea prestatua diote.

Beti ere moralismo kristau usainez, hamaika hitzaldi eta bilkura antolatzen dute. 1976ko udan bertan, «*Hurbilketa ez biolento bat gizarte aldaketaruntz*» izenpean egin zen bat, kontra-intsurjentzia «bigunean» espezialista direnek parte hartuz.

## **Bi emakume bakearen aldeko mugimenduaren buru**

Telex batek mundura hedatu zuen berria: IRAren eta armada britainiarraren arteko tiroketa batean bi haur hil eta hirugarren bat zauritua gertatu zirela (hau ere hil eginen zen gerora). Biharamonean jakingo zen halako tiroketarik ez zela izan. Soldaduek bakarrik tira zuten, eta txofer zihoan militantea hilik, autoa kontrolik gabe geratu zen; eta barruan zeramaten arma bakarra desmontatua zegoen. Baina okerrago zena: autopsiak argituko zuen bi haurrak autoa gainera etorri baino lehen tiroz hilak izan zirela, soldaduek erreparorik gabe tira zutelako.

Hala ere, gertakizun horrek eraman zituen bi emakume, Betty Williams eta Mairead Corrigan, haurren izeba, Bakearen aldeko Mugimendua sortzera. Biak katolikoak, lehena injeniari protestante batekin ezkondua, bigarrena «Mariaren Legio» delakoaren partaide, abortoarekin kontrako militante gogorra.

Kaleko bi emakume arrunt antzeko hauen atzetik bazen buru bat, *Ciaran McKeown*. Katikoa izan arren unibertsitatera iritsia, gaztetan ikasle mugimendu aurrerakoietan ibilia zen, eta geroztik Sinn Fein Ofizialekoekin oso lagun, IRA Ofizialak lana gogor egiten zuen garaietan, gero People's Democracy-koekin ere ibili zelarik. Bera izango da mugimenduaren gidari ezkutua.

Haurren hiletan sekulako jendetza izan omen zen, militante gaztearenean bezala. Bakearen aldeko mugimendua martxan jarriko da, eta hasiera batean hogeita mila milataraino bilduko ditu. Ze bake eskatu ordea? Aurreko urteko tregoa militarrek zuten behin eta berriro hautsia, eta agian IRAren akatsetako bat zen berriro guduan sartzeko erabakia ongi esplikatu ez izana.

## **Bakearen aldeko manifestaldiak**

Komunikabide guztiak gainean zitutela, prentsan bezala telebistan egunero azalduz, abuztuaren 28rako prestatu zuten manifestaldia Shankill Road ibilbidean, Belfasteko auzo lealista handian. Biolentzia guztien kontra ari dira; seguritate indarren metodoei buruz galdetzean deklaratu dute: «*lanez leporaino gabiltza eta esan nahi dugu ez gaudela prest sartzeko politika eta seguritate arazoaren xehetasunetan*».

Hiru haurren heriotza gertatu eta lau egunetara paratxutistek haur katoliko bat hiltzen dute, normalki errepublikanoek erabiltzen duten «Armalite» fusil batekin! Baina Bakearen Aldeko Mugimenduaren buruek ez dute bortxakeria hori arbuia nahi.

Egun seinalatuan hogeit hamar pertsonak hartu zuten parte manifestaldian, zaintzen zituzten paramilitar lealisten erditik. Tartean mordoska bat katoliko, apaiz-monjak, edadeko jendea, burgesia tikiaren zenbait partaide, «*Sorry, Pardon*», «Sentitzen dugu, Barkatu», zioen pankarta baten atzetik. Katolikoek lealisteri ezertan barkamena eskatu beharrik ba ote zuten? Baina nazionalistak, multzoan, ezin ziren lealisten auzoaren erdian ausartu. Bezperan, kale hartatik gertu, familia katoliko bat bizirik kixkalia zuen lealista talde batekin!

Dublingo manifestaldiak oso zentzu ezberdina zuen: erdi mailako klaseek sekula Irlandak ezagutu zuen gobernurik kontserbadoreari babesa eskaintzen zioten, Iparraldeko anaien masakrean lagundu zezan.

### **Biolentzia salatzen IRAko militanteak salatzen**

Bigarren fase batean, atzerrirako bidaiak ugaritzen dituzte Bakearen Aldeko Mugimenduaren partaideek. Beren mezua: klase eta komunitate guztien kontsentsua bilatu behar da terroristak isolatzeko, eta Ulster deitzen den territorio barruan konponketa iristeko.

Ipar Irlandako manifestaldiak baretu direlarik (hasierako lagun askok otsoari belarriak ikusi dizkio), Londresen antolatuko da bat handia. Irlandaren aldeko edozein manifestaldik beti debekua baino ez zuen jaso. Oraingoak baimenak eta laguntza guztiak jaso zituen, poliziaren laguntza barne. Hala ere, antolatzaileek 100.000taraino jende espero zutelarik 10.000 eta 15.000 artean geratu ziren. Elizako, politikako eta negozioetako jende handiak, han dira, denen artean *Joan Baez* protagonista dela. Irlandes gutxi; gehiago dira «Troops Out Movement» (Tropak Kanpora, irlandarren aldeko mugimendu britainiar bat) taldekoekin kontramanifestaldian biltzen direnak.

Londresko manifestaldiaren ondoren, Mugimenduaren sarea Ipar Irlandan jostea da helburua. Errepublikanoek jestionatzen dituzten erakunde herrikoiak hankaz gora botatzeko, bakea eskatzearekin batera prolema sozialak konponduko litzuketen inbertsioak, yankiak batez ere, hasten dira proposatzen bakezaleak. Horrekin batera denbora libreko elkarteak, terrorismoak kolpatutako laguntzeko taldeak, gazteentzako klubak, presoak bixitatzen eta ahal izanez gero beren organizazioetatik ateratzeko taldeak...

Azkenean, Betti Williams salaketa eskatzeraino iritsiko da: bere semea IRAkoa dela baleki berak denuntziatuko lukeela adieraziko du publikoki.

### **Erreginaren, alemanen eta yankien laguntza pa-regabea**

Peace People (Bakearen aldeko Jendea) honek Britainia Handiko eta Estatu Batuetako gobernuen laguntza jasoko du berehala, gero Alemaniakoena. Sozialdemokrazia, USAko dirudun irlandarrak, baita Australia eta Canadakoak ere... eta mundu guztiko feminista ugari, denak beren alde jarriko dira. Mundu guztiak eskaintzen die laguntza, eta Elisabeth II. erreginak bere gain hartzen ditu kanpainarako behar dituzten auto eta tren guztien gastuak. Hamabosteroko bat ere argitaratzen dute, eta ofizialki deklaritzen dutenaren aldean izugarri gastatzen dute.

Diruaren erabilera dela eta taldean tirabirak sortuz doazen arren, Europan indartsu ari dira mugimendukoak. Alemaniak interes bikoitz bat du Irlandan: inbertsio asko ditu lehen ere han eginak, eta bestalde Europa mailan planifikatu nahi den kontraterrorismoarentzako oztopo handi bat suposatzen dute irlandarrek. Gunter Grass idazleak publikoki deklaritzen die bere atxikimendua, eta baita diru askoz lagundu ere Willy Brandt-ek; prentsak sekulako eskandaloa sortuko zuen hilabete pare baten buruan, Brandtek CIAgandik sosa jasotzen zituela argitu zuenean.


Estatu Batuetako lana ere inportantea zen. NATOren beldurra beti izan da errusiarrek Irlanda aprobetxatuko ote zuten, eta britainiarrek aldiz nahi zuten lortu irlandar jatorrizko amerikarrek IRARI sose eta logistika aldetik ematen dieten laguntza ukatzea. Operazioa distiraz burutzeko, Jimmy Carter presidentek 1977an adieraziko zuen Ipar Irlanda bakeratzekotan han inbertsio berriak egiteko posibilitatea.

Baina Irlandan bertan ere harreman handiak izan zituzten yankiekin. Belfastko kontsularekin tratua zuten, eta seinalagarria da 1977an haruntza eraman zuten enbaxadorea, Charles Stout, zuzenean Santiagon de Chiletik zetorrela, han Salvador Allende botatzeko lanetan «Lapikoen mugimendua» antolatuta. Kontakto horiek bakezaleek beren prentsan aitortzen zituzten. Jasotzen zuten diruaren erdia baino gehiago amerikarra zen.

### **Eta Bakearen Aldeko Mugimendua alternatiba politiko bihurtu zen**

Azken eskandaloa 1978ko urrian sortu zen. Mugimenduarren hiru buruek, McKeown-Williams-Corrigan, zuzendaritzan ez jarraitzeko asmoa agertu zuten. Ordurako oso kritikatuak ziren, eta dena burutzeko hanka sartu zuten: Nobel saria bi emakumeei eman zitelarik, bien artean banatu zuten. Horiekin erdibana, saria *Amnesty Internationalek* ere jaso zuen; honek Irlandako torturaz egindako dossiera galerazi egin zen, eta No-

**Emakumeari estrategia kontra-intsurjentean paper oso egoki bat eman nahi izan zitzaion, gizonak omen daramaten biolentzia arbuiautuko bailuten. Baina errepublikanoen artean, emakumeek ere parte hartzen dute erresistentzian.**



bel sariaren beste irabazleek ez zituzten torturak salatu nahi.

Bitartean, presoan aldeko mugimendua berriro sendotu zen eta Peace People-koak berandu iritsi ziren tortura salatzerare. Zuzendaritzan lealistak jartzen dira, betidanik errepublikanoen kontrako belijerantziaz ezagunak direnak, eta Ulsterreko estatua eraiki nahi duen bidetik zuzenago definitzen. Azkenean, Bakearen Aldeko Mugimendua alternatiba politiko bihurtu da: errepublikanoek nahi duten Irlanda batu eta sozialistaren alternatiba.

Liburuaren egileak galdetzen dio bere buruari mugimenduari sakoneko esanahiaz: «*Gertakizun taktiko bat ote zen, gatazkaren helburuak ilunago bihurtzeko egin direnatan bat gehiago, ala benetako estalki bat zen Irlandako gerran eman den aldaketa estrategiko batentzako?*»

Gauza bat da zalantzarik uzten ez duena: emakumeari estrategia kontra-intsurjentean paper oso egoki bat eman nahi izan zaio. Zera litzateke: Ulster deituan erlijio gerra bat dago, gizonak daramatena; eta emakumeek gizonen biolentzia arbuiaitzen dute. Baina errepublikanoen artean egia ez da holakoa: emakumeek parte hartzen dute erresistentzian, eta baita presoan laguntzan ere.

Egia da Europako ezkeriar askok mugimendu ezkeriartzat hartu zituela. Ez berak ezkeriarrak zirelako, ezkeriak bere estrategia egiteko behar zuen bakea lortu nahi zutelako baino. Sinn Fein Ofizialak deklaratu zuen: «Bakea da Irlandako erreibindikaziorik iraultzaileena».

Guzti horrekin, zerbitzu ona egin zieten britainiarrei hilabete batzuetan, erresistentzia kriminalizatzen lagunduz eta Ulster independente baten ideia erne eraziz. Denbora irabaztea zen garrantzikoena. Gero gerokoak, Irlandako nazio arazoak sus-trai sakonak dituela eta...

***Honeraino Roger Faligot bretoiaren liburuaren laburpena. Irakurlea konturatu da, zalantzarik gabe, ez dela Irlandako nazio askapen mugimenduari eta borrokaren azterketa bat. Liburuaren helburua ere ez da eta hori. Europa barruan eta aldi berean Europa bazterrean demokrazia europar batek nazio askapen prozesu bat usteldu eta suntsierazteko erabiltzen duen strategiaren azterketa xehe bat egiten du liburuak, eta bere laburpena ere zabala egin nahi izan dugu, euskaldunontzako xehetasun horiek merezi dutelakoan. Hemen ere kontra-intsurjentziaren dimentsio hori ahaztuz gero jai bait dugu abertzaileak.***

**GATZAGA TALDEA**